


ANTONIO ZAVALA, S. I.



**ERRIKOTXIA, ITXASPE
TA BESTE ZENBAIT BERTSOLARI**



AUSPOA LIBURUTEGIA

ERRIKOTXIA, ITXASPE
ta beste zenbait bertsolari

AUSPOA LIBURUTEGIA

60

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Estudios Universitarios - Mundaiz - San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

ERRIKOTXIA, ITXASPE
ta beste zenbait bertsolari

AUSPOA LIBURUTEGIA
1966

**Dofnuak, Magnetofonetik
artu ta idatzi dituana:
Ambrosio Zatarain jauna.**

D. L. S. S. 800/66

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1966**

ARKIBIDEA

ERRIKOTXIA BERTSOLARIA

Bizitza	9
San Juan eskean	22
Patxi Errekondo	28
Errikotxia ta Manuel ta Mateo Oloki	32
1894: Bertso Berriak: «Milla zortzi eun eta gañera...»	35
Antigua'ko Misiolari	44
Bertso Berriak: «Dozen erdi bat bertso jartzeko – naiz intentziyo fuertian...»	46
1911: Igeldo'n izan diran Misiolari Jau- nari Bertso Berriak: «Milla urte ta be- deratzireun...»	54
Igeldo'ko Misiolari	64
Ezkontza Galdua: «Dozen erdi bat ber- tso jartzeko – oraiñ artu det idia...»	64
Bermeo'ko Astoarenak	74

ERRIKOTXIAREN SEMEA

Baserritarren Bizimodua	80
Bertso Berriak: «Bertso berriak ipiñi- tzeko – daukat desio osua...»	82
«Errejidore bat...»	87
Mutil zar tratalari bati	87

ERRIKOTXIAREN BILLOBA

Bertso Berriak: «Bertso batzuek ateratzeko – barrenak agindutzen nau...»	92
Udarregi zana	97

ITXASPE BERTSOLARIA

Bizitza	110
Errikotxia ta Itxaspe	114
Emaztea	118
Tabernan	122
Puntua jarrita	126
Tratuan	132
San Juan eskean	136
Itxaspe ta Gaztelu	140
ITXASPE'KO JOXE MARI	145

ERRIKOTXIA BERTSOLARIA

BIZITZA

Errikotxia bertsolaria, Jose Agustin Lertxundi Alda, Usurbill'en jaio zan, 1855 urteko Maiatzaren 24'an, arratsaldeko zazpi-retan. (1)

Gurasoak zituan: Pedro Inazio, usurbildarra, ta Maria Martina, berastegitarra.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Inazio, usurbildarra, ta "Catalina de Aramburu", azpeitiarra. Amaren aldekoak: Martin Jose ta "Maria Francisca de Alduncin", Berastegi'n jaio ta bertan bizi ziranak.

Aita ta ama pontekoak: Jose Agustin Lertxundi, aitaren anaia, ta Maria bautista Alda, amaren aizpa, alkarrekin senar-emazteak ziranak.

Zori txarrez, agiriak ez du esaten zein baserritan jaio zan; bañan, uste danez, Errikotxia baserrian jaioko zan, baita bertatik artu ere bere denbora guziko izengoitia.

(1) Usurbil'ko 5'gn. bataio-liburua, 33'gn. orri-alde.

Zortzi senide izan ziran: Maria Bautista, Inazio Maria, zortzi egunekin illa; Jose Maria; Jose Agustin, gure bertsolaria alegia; Jose Domingo; Maria Josefa, iru illebeterekin illa; Franziska Paula, bost urterekin illa; ta Maria Franziska, lau urterekin illa.

Karlisten gerratea sortu zanean, Frantzira aldegin zuan fameli guziak.

Gerretatik iges egiteko, motibo asko dago beti noski, bañan, gure iritzirako, fameli onek beste motibo berezi bat ere bazuan: bizi ziran bi seme zaarrenak soldadu-urteak zituzten, ta, emen gelditurik, fusilla artzetik nekez libratuko ziran.

Frantzira sartu ziran egunean bertan, topo egin zuten auzoko beste fameli bat, au ere mugaz beste aldera iges eginda. Ixil-ixilik gauzak antolatuta, ta alkarri batere esan gabe, asmo bera izana zuten, baita egun berean toki berera joan ere.

Urruña'ko errian, Beiñapaita etxean, bizi izan ziran gerra-urteetan. Berak ez-ezik, Orio inguruko zenbait fameli ere bai.

Gerra bukatu zanean, batzuek bertan gelditu ziran. Ondorengoak antxe bizi dira gaurko egunean ere, ta Orio'tik ara iñor, desertore-edo, joaten baldin bada, aietara bide egiten du, ta oso ondo artu ta laguntzen diote.

Bañan Errikotxiaren familia bueltatu egin zan, ta Usurbil'ko Egioleta baserrian jarri zan bizi izaten.

Jose Agustin, gure bertsolaria, frantzes lardaskatzen ikasita etorri zan. Erdera, berriz, poliki zekian. Orregatik, Muniota'n ezkondata bizi zanean, iñor erderaz egin bear zuanik etortzen bazan, bera deitzen zuten; Orio ta Igeldo bitarteko mendi ortan ez baitzan besterik, erdera konprenitzen zuanik.

Anai Joxe Mari etxera, Egioleta'ra, ezkondu zan, ta bertan il zan, lau alaba utzita.

Maria Bautista, senideetan zaarrena, ta Jose Domingo, bizi ziranetan gazteena, Ameriketara joan ziran. Maria Bautista, emen ezkondu ta gero joan zan. Jose Domingo, ezkongaietan. Etortzeko asmotan joan omen ziran, bañan, iñoiz bueltatu gabe, an bertan illak dira biak.

Jose Agustinen aita-ama pontekoak, aita ta amaren aldetik beraren osaba-izebak ere ziranak, Orio'ko Muniota-berri baserrian bizi ziran, seme-alabarik gabe. Auek, Jose Agustin etxera ekarri ta semetzat artzea pentsatu zuten; baita ere alabatzat Errenteria'ko beren beste illoba bat, Josefa Antonia Arsuaga Segurola. Ta osaba-izeben etxera etorrita, alkarrekin ezkondu ziran illoba biak.

Denborarekin, bi bizitza zituan Muniotazar baserria, dana berentzat erosi zuten, ta onera aldatu ziran bizitzez, Muniota-berri'n maiztar bat jarrita.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Maria Josefa, 82 urterekin liburu au egiteko argibiderik geien eman diguna; Josefa Inazia; Prantxisku Mari, Muniotazar'en bizi dana, ta bertsolaria bera ere; Jose Mari, 18 illabete zituala, garrotilluarekin illa; Maria, Ameriketara joana ta an illa, bi alaba utzita; Agustina, Marzelina, Manuel ta Antonia.

Errikotxia, edozein baserri lanetan, langille piña ta onenetakoa omen zan, bein artara jarri ezkeru, bañan bromarako ta festarako gogo geiago zuana. Artarako jaioa zan, ta festarik festa ibiltzen zan.

Bein batez, Berastegi'ko festak ziran. Dakigunez, angoxea zuan ama. Errikotxiak patata atera bearra zeukan. Ba, gauez, illargitan patata ateratzen jardunda, goizeko laurretan abiatu zan Berastegi'runtz, Belabieta'tik barrena, oñez...

Ola ibiltzeko, lagun aundi bat zuan: Usarbe baserriko Patxi Errekondo. Muniota'tik Usarbe'ra ordu laurden bateko bidea izango da.

Patxi txistularia zan; Errikotxia, berriz, danbor-jotzallea. Patxik, gerrian sartuta eramaten zuan txistua.

Iñork deitu gabe, bere gisa, erri-festa guzietara joaten ziran. Naikoak ziran biak, allegatzen ziran tokian festa ederra jartzeko.

Agiñaga'ko aitonak oraindik ere oroitzen dira, nola etortzen ziran bertako festetara, goitik beera, soñu joaz, bideko baserri guzietako gazteria pasadan bildu ta atzetik zutela.

Danborrak eta txistua galdata ere etorri izan ziran. Bañan gero atzera entregatu zizkieten.

Gau batez, nunbaiteko festetatik zetoze, lo artu zuten, etxera baño leen, aldapan. Ta, urrengo goizean, an arkitu zituzten, aritz baten ondoan, lotan oraindik ere, danborra ta txistua aldamenean zituztela.

Jai-arratsaldeetan, etzan Errikotxia sekulan ere etxean gelditzen. Igande batez, bazijoan norabaitera bazkalondoan. ta bateonbateg, ikusita, onela galdetu zion:

—Nora oa orren goiz, Errikotxia?

Ta onek:

—Je! *¡El día de fiesta
no hago siesta!*

An edo emen festa baldin bazan, onela esaten zuan:

—Il naiago genduke, ba, festa ortara joan baño!

Emaztea sekulan itz erdi bat esan etziona
zan, seme-alaben bistan beintzat, bañan, se-
narra ori esaten entzutean, onela esaten
zion:

—Aukera jarriko ote degu ba?

Aotik aora ederki botatzen zuan bertsoa;
baña, segira luzea bazuan, nerbiosotu egi-
ten zan.

Bein batez onela kantatu omen zion Ole-
gario bertsolariari:

Olegariok len etzekian
tamaña ontako bozikan,
orain ederki ikasi du ta
kantatuko du pozikan...

Lauko ori bertsoaren asiera omen zan.
Beste erdiaz etzan bere alaba oroitzen.

Beste egun batez, Usurbill'en zerbait fes-
ta izana zan, eta, Errikotxiak, Xendoieneko
tabernan apari-legeren bat-edo egin ondoren
andik ateratzean, balkoi batean iru neska
gazte ikusi zituan. Ta onela kantatu zien:

Begira or dauzkagu
iru dama gazte,
ederrian badute
batak ainbat beste;
orren polit ziranik
nik ez nuan uste,

irurak nobiyua
ba omen dituzte. (2)

Beste batean, nunbait ere alkar topo egin-
da, Txirritak bost puntuko bertsoa bota
zion Errikotxiari, ta onek laukoa kantatu
zion ordañetan:

Bost puntuko bertsoa
bota dirazu *rau*,
ixturiatzen dezu
egunez edo gau;
nik ere errex xamar
osatzen ditut lau,
baño bosgarrengiak
larri ibiltzen nau. (3)

Itzetik ortzerako beste zenbait bertso, ge-
ro arkituko du irakurleak.

Ortaz gañera, bertso-paper politak atera oi
zitan. Oietako zenbait, liburu ontan arki-
tuko ditu irakurleak. Geienak, izen gabe
daude; bañan Errikotxiarenak dirala, bera-
ren alabak edo auzoko aiton bertso-zale ba-
tzuek jakin-arazi digute.

Bertso zaarretan, berriz, izugarri zekiana

(2) Bertso au Pedro Bidasoro'k (Eguzkitza base-
ria, Aginaga) emana degu.

(3) Bertso au, Agiñaga'ko Juan Jose Lizarreta'k
emana.

omen zan. Askotan kanta-azten zizkioten tabernan edo lagun artean, ta bai berak pozik asko kantatu ere.

Adibidez, illundu ondoan, etxeko sukaldean, gizasemeak idi-larruzko abarkak josten, eta emakumeak aparia maneatzten edo gaztañak erretzen ari ziraden bitartean, askotan kantatzen omen zuan leendik datorren kanta zar au, bere seme-alabak ikas zezaten:

Nere kristau maitiak,
au da alegriya!
argi egiten dago
guri illargiya;
alabatu ditzagun
Jesus ta Mariya,
aingeruak kantatu
ziyoten gloriya.

Ipui zaarretan ere asko zekian. Onako au, berak kontatzen zituanetako bat da: Euskalerriko artzai bat Madrida eraman zuan, an serbitzen zegoan bere arreba batek, beñere ezer ikusi gabe etzuala bizi bear ta. Apaintzearren, arrebak jantzi-arazi zizkion alkandora almidoiez gogortua, zapatak eta abar. Erakutsi zizkion ango ikusgarri guziak. Bañan artzaia etzebillen lasai ango kaletan, ezta arrebak jantzi-arazitako burniz-

ko —berak ala zion— alkandora ta zapata aien barreanean. Ala, bueltakoan, kalea utzi ta mendi edo zelaietara sartu zan bezin laister, jiratu, Madrid aldera begira jarri ta onela esan zuan artzaiak: “A, Madrill, Madrill! Or bizi baño obe dek emen ill!”

Orregatik, arta-zuriketan bazuan estimazioa: “Joxe Agustin, ia arako bertso aiek! Joxe Agustin, ia ipui bat!”

Parre-egin-zalea zan oso, bañan gaizki itze-egin-zalea, ez; bestek iñorengatik gaizki esaka jardutea ere, etzitzaion gustatzen.

Estropada-bertsoak jartzea, askotan eskatu oi zioten, bañan etzuan iñoiz ere jarri. Berak erri askotan ibilli bear izaten zuala, ta olako bertsoetan kontrarioari gaizki esaten zitzaiola, ta etzuan nai.

Bañan, ain parranderoa izanik ere, iñork sekulan itxura txarrean ikusi etzuana zan.

Etzuan iñorekin bein ere ezer izan. Gizon bizia, azkarra, bromosoa ta atsegiña zan. Tamañez, berriz, txikia.

Egun batez, bateonbateg onela galdetu zion burlaz:

—Errikotxia, zuk ere txiki denbora izan al zenduan?

Ta onek:

—Bai, makiña bat urtean!

Guzientzat olako tapakiren bat bazuan; bañan geienetan bertsotan.

Bein batez, Getari'n mitiña zan, da batek onela galdetu zion:

—Nora oa, Errikotxia? Getari'ra?

Ta onek:

—Zer da, ba, Getari'n?

—Getari'n? Mitiña!

—Mitiña? Obe uke antxua edo xardiña bi tiña!

Bertsotan ta broman ibiltzeko, auzo txarrik etzuan iñola ere. Muniota, Orio'tik ordu erdi batera dago, Igeldo aldera artuta. Ta Orio ta Igeldo, Oria ibaia ta itxasoaren bitartean, onako bertsolari auek bizi ziran, gutxi gora-beera garaitsu batekoak:

Itxaspe'ko Iñazio ta Joxe Mari, Benta, Txanka aita-semeak, Gaztelu osaba-illobak, izen bereko baserrietan; Aintzira'n Extewan; Artikula-Txiki'n, Oloki aiton-billobak; Artikula-aundi'n, Udarregi aita-semeak.

Udarregik, Txankak eta Gazteluk liburu oso bana izan edo izango dute; gaurko onetan, berriz, aitatutako beste bertsolari guzien bertsoak dijoaz; jaso al izan ditugunak, noski.

Igandeetan, bertsolari oietako batzuek Orio'n biltzen ziran, mezetara etorrita. Meza-ondoan, amaiketakoia iru errialean egin,

tragoxka batzuk edan eta sasoiean jartzen ziran kantuari ta bromari ekiteko.

Bein batez, Orio'ko bikarioa zan Don Migel Mujika apaiz jaunak, Errikotxia zimitorioan bakarrik arrapatu zuan, eta konseju onak ematen asi zitzaion:

—Begira, Joxe Agustin: erare ortan, familia azi ta gero, erretiratu bear zenduke, festarik festa bertotan ibilli gabe.

Ta Errikotxiak:

—Bai, jauna, bai; neronek ere, berorren jantzi beltz ori banekuka, olakoxeko gauzak esango nituzke.

Bikarioak berriro ekin zion:

—Oso itxusi ematen dezu, festarik festa erare ortan!...

Ta Errikotxiak:

—Je! Jainkoak eginda baño ohea izaten, ezta errez ba!

Bikarioa, parrez lertzen joan omen zan andikan.

Oso errezatzallea zan, azkeneko urteetan batez ere. Maia bedeinkatzeko otoitzak, berak esaten zituan etxean beti, festaren batera joana ez bazan beintzat. Asieran, garai ortan oi zanez, famili guziak gurutze egi ten zion maiari.

Apalondoan errezo luzeak zituan. Ondo-

ren, seme-alaba txikiak gurasoai eskuan gurutze ta muñ egin, eta oiera joaten ziran.

Errosarioa ere berak errezatzen zuan. Ondoren, akto fedekoa, esperantzakoa ta kariatadekoa errezatzen zituan. Urrena, aita-gurre asko: “Etxe ontatik lenengo paltatzen danarentzat...”; “Zeñek errezatu ez daukan animarentzat...”; “Urterik geienen purgatorioan dagoan animarentzat...”

Animai ez-ezik, gogoratzen zitzaizkan santu ta santa guziai ere bai: San Antoniori, San Inaziori, San Nikolasi, San Pedrori... “Gaurko eguneko santu edo santak eta bakoitza geren aingeru guardakoak guarda gaitzala eskarmentu, deskalabro, gaitz eta eriotza pekatu mortalekotik...”; “Jesus, Maria ta Josek beren eskuetatik ez gaitzala utzi eriotzako orduan...”

Arta-zuriketean ere, berak errezatzen zuan, gaueko amabietan. Ta arta-zuritzalleak onela zioten gero:

—Olako errosarioarekin purgatorioko animak poztuko dituk orregatik!

Edo bestela:

—Erretolika luzea zan azkeneko ori!

Ta Errikotxiak:

—Santu ta santa oietatik, zein apartatzen dezute, ba, ez errezatzeko?

Azkenerrako, biotzetik ondo-ezik jarri zan.

Elizakoak artuta urtebete inguru egin zuan. Alare, bromarako gogoa etzitziaion galdu. Iñor joaten bazitzaion bisitatzera, izango zuan istoriya.

Egun batez, oso egualdi txarra zegoala, Etxaiz baserriko andrea etorri zitzaion. Onela esan zion onek, izketan ari zirala:

—Au egualdi txarra deguna! Ondo gogotik ari du ebia!

Ta Errikotxiak:

—Ba, gorputz ona, ebitsu!

Elizakoak artu zituanean, Txanka'ko Maria ere joan zitzaion, beste askoren artean. Maria au, moja joateko zegoan, eta, iñor baserriren batean iltzen bazan, berak errezatzen zuan errosarioa.

Jauna artu ta gero, onela esan zion Errikotxiak:

—Etorri zera, ba, zu ere Txanka'tik oneraño!

—Etorriko ez nintzan, ba, Jaunari laguntzera ta berori ikustera?

—Bai, orain Jaunari laguntzera etorri zera, ta aurki errosarioa errezatzera etorri bearko da, ta zerorrek errezatu zazu, beste tokitan bezelaxe.

Eriotza onela gertatu zitzaion: Etxean sagardo egitera zijoazen. Auzoko gizon batzuk

laguntzera etorri ziran. Errikotxiak oietik sentitu zituan, eta ezin gelditu izan zan aien-gana joan gabe. Jeiki zan oietik, eta tolare-ra igo zan.

Andreak onela esan zion:

—Zertan jeiki zera? Oneraño etorri zera, ba, Jaungoikoaren izenean!

Ta senarrak bromaz:

—Bai, meza ta kalbarioak errezatu ditut; oiek neretzat nituan, ta orain zuretzat errezatuko ditut, egun guzian emen ibilliko zera batere errezatu gabe ta!

Etorritako gizonak parrez. Auekin broma pixka bat egin, eta atzera jetxi ta oiera sartu zan. Bañan bereala oska sentitu zuten. Joan ziran eta etzegoala ondo, zeozer bazuala... Ta, bereala kontua galduta, il egin zan.

1932 urteko Azaroaren 21'garrena, ta arratsaldeko hostak ziran. 77 urte zituan. (4)

SAN JUAN ESKEAN

San Juan gauean, baserriz baserri eskean ibiltzen zan, garai batez beintzat, Orio ta

(4) Orio'ko 7'gn. eriotz-liburua, 60'gn. orri-alde.

Errikotxia zanaren bizitza labur onetarako, ezagutu zutenak eta, batez ere, bere alaba Maria Joxepak eman dizkigun albisteetaz baliatu gera.

Usurbil inguruko gazteria. Baita Ernani aldean ere. (1)

Ta Santa Ageda eskean bezela, ez da bertsozik kantatzen, koplariak baizik. Kopla batzuek, aspalditik datozenak dira; besteak, berriz, koplariak asmatu ta kantatzen dituanak. Etxe bakoitzean famili guzia koplatu bear da: lenengo, etxejojauna; urrena, etxejoandrea; gero, seme-alabak.

Leendik datozen koplaetatik, geientsuen kantatzen dan bat, onako au degu:

Gaur da San Juan bezpera eta
biyar San Juan Bautista,
Jesukristoren lengusuba zan
San Juan Ebanjelista.

Ori, koplariak bakarrik kantatzen duana da; kuadrillak onela jarraitzen du:

Dios te salbe, ongi etorri,,
gabon Jainkuak diyela,
legiarekin kunpli dezagun
Aita San Juanen bezpera.

Doñua, Igeldo'ko Mateo Landa'k (Udaregiren billoba) kantatu zuan bezela, onela da:

(1) Begira, adibidez, Auspoa 18-19, 169'gn. orri-aldean.


Solo

Gaur da San Ju-an bez-pe-ra e - ta
 bi-yar San Ju-an Bau-tix-ta Je-su-krix-to-
 -ren len-gu-su-ba gan San Ju-an E-ban-je-
 -lix-ta *Tutti* Di-os te sal-be on-gi e-to-rrri
 ga-bon Jain-ku-ak di-ye-la le-gi-a-re-
 -kin kun-pri de-za-gun Ai-ta San Jua-nen bez
 -pe-ra


Ona emen, herriz, doñu bera pixka bat aldatua; koplariarena, Ambrosio Zatarain jaunak Aiako bati 1935 urtean entzuna da; kuadrillarena, Usurbil'ko Urdaiaga aldean beti kantatu izan dana:




Ne-re la-yu-nak al-da-me-ne-tik go-gor




di-da-te a-gin-tzen a-si-ko ba-naiz




a-si na-di-lla na-gu-si jau-na ko-w pla-tzen




Di-yos te sal-be on-gi e-to-rrri ga-bon



Jain-ku-ak di-ye-la le-gi-a-re-kin



kun-pli de-ra-gun Ai-tta San-Jua-nen bez-



-pe-ra

Errikotxia San Juan eskean askotan ibili zan. Urte batez, kopla au kantatu zuen Benta'n:

Gaurko onetan kantatu degu
emen bertsua ugari;
ate guziak itxiak daude,
argirik ez da ageri.

Usarbe'n, berriz, onela koplatu zuan bere lagun aundia zuen Patxi Errekondo, onen ofizio guziak esanaz:

Ikazkintzan da nekazaritzan
degu abill enterua,
zerraria ta korrikariya
eta danbolinterua.

Patxi Errekondo'ren alaba bat Errikotxiaren seme zaarrenaren andregaiia zan. Seme ori, Prantxisku Mari, kopla auek esan dizkiguna, zelatan jarri zan Usarbe ondoan, aitak bere andregaiia nola koplatuko ote zuan entzuteko, bai baitzekian aita jakiñaren gainean zala.

Onela koplatu zuan Errikotxiak etxeko alaba ori:

Errespetuan ikusitzen da
persona zarren moduan,
neskatxa gazte formalagorik
eztet ikusi munduan

Onelakuak orain topatzen
badago amaika neke,
nere errañagaia baziña
askotzaz naiago nuke.

Lenago ere etzera egongo
gauza ori jakin gabia,
uztargillia ona da bañan
maiorazkua obia. (1)

* * *

Ta, leendik ikasiak edo momentuan asma-
tuak, kopla auek ere Errikotxiak kantatuak
omen dira:

Bedeinkatua, alabatua
da Sakramentu Santua;
pekatuaren mantxarik gabe
graziaz konzebitua.

Jesukristoren enemiguak
Pilatos eta Herodes,
luzatzerako jakin nai nuke
limosnarik dan edo ez.

(2) Bere seme ori etxeko maiorazkua baitzan.
Prantxisku Mari Lertxundi, Errikotxiaren semea,
Muniota, Orio.

Etxe azpian langia,
etxaburuan bordia,
etxe ontako maiorazkuak
noiz ote dakar andria? (2)

PATXI ERREKONDO

Patxi Errekondo, Franzisko Beldarrain Al-berdi, Aia'n jaio zan, 1853 urte inguruan.

Itzaurrean adierazi danez, bera zan Erri-kotxiaren laguna, festarik festa ibiltzeko. Ta nola ibiltzen ziran ere, bertan esana dago.

Ona orain emen Patxi Errekondo onen iru gertaera:

* * *

Orio'ko Pérez'tarrak Patxi Errekondoren illobak ziran. Oso aberatsak ziran eta auto-mobilla ere bazuten.

Urte batez, Orio'k estropadak irabazita, Pérez'tar oien automobillean ekarri zan bandera.

Oi bezela, erri guzia zai zegoan. Ala, alle-gatu ta bandera errian sartzerakoan, Pérez oietako batek bere osaba zan Patxi ikusi

(3) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.



PATXI ERREKONDO

zuan jende tartean. Alderatu ta bizkarretik eldu zion.

Orduan Patxik bertso au kantatu zion:

Nere sorbiñua da
Don Joakin Pérez,
premiyuak ekarri
ditu kantidadez,
irabazi galanki
ta galdu baterez,
bandera ekarri du
antonborobillez.

Jarri dan bezelaxe esan omen zuan: *sorbiñua* ta *antonborobillez*. (1)

* * *

Patxi Errekondok, 60 urte zituala, korrika-apustu bat egin zuan "Motza" esaten zioten 20 urteko mutil oriotar batekin.

Motza onek, Orio'tik abitu bear zuan; Patxik, berriz, Suaiko gañetik, Orio ta Zarautz bitarteko gañetik alegia. Getaria'raño joan-etorria egin bear zuten.

Ekin zioten, eta, bueltakoan, iya Orio'n zirala, Motza oso alderatzen ari zitzaion Pa-

(1) Kristino Arruti Errikotxia, Errikotxia bertso-lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

txiri, ta onen semeak albotik animatzen zuten:

—Ia, aita! Ia, gutxi palta da ta!

Ta Patxik irabazi zuan, Motza zubi erdian zalarik. (2)

* * *

Aari bat ere izan zuan, baita apustua egin ere.

Jokatu bear zan bezperan, parranda egin zuan. Biaramonean igandea zan, eta, mezetan zala, sermoia-denboran loak artu zuan, koru-azpian alkietan exerita zegoala.

Ta, lotan zegoalarik, ametsetan asi zan, ta, ain zuzen, apustuarekin amets egin ere. Eliza guzian entzun zan oju au egin zuan beintzat:

—Bost duro nere aariaren alde!

Meza ondoan baitzan jokua. Aariak eun da larogei ta geiago kolpe eman zioten alkarri, bañan Patxirenari adarra atera zitzaion; ala ere segitu zuan, bañan apartatu egin zituzten. (3)

* * *

(2) Prantxisko Mari Lertxundi, Patxiren suia, Muniota-zar baserria, Orio.

(3) Prantxisko Mari Lertxundi, Patxiren suia, Muniota-zar baserria, Orio.

Azkeneko urteetan Donostia'n bizi izan
zan, alaba baten etxean. Ta bertan il zan,
1948 urteko Martxuaren 28'an, 95 urterekin.

ERRIKOTXIA TA MANUEL TA MATEO OLLOKI

Edozeñek dakianez, Usurbil'ko Artikula-
-aundi'n Udarregi bizi zan; urrengo base-
rrian, berriz, beste bi bertsolari ziran, al-
karrekin aiton-billobak ziranak: Aitonak,
Manuel zuan izena; billobak, berriz, Ma-
teo. Sagardia zuten apellidua.

Ono emen bertsolari auen zenbait bertso:

* * *

Manuel Olloki bertsolariari, gazte batek,
burla pixka bat egiteagatikan, zaarra zegoa-
la kantatu zion. Bertsoak azkena onela
zuan:

.....

.....

.....

.....

ni asitzen banaiz
kargatu ta tira,
Olloki zarran bertsuak
arrotuko dira!

Ollokik onela esan omen zuan:

—Burla egin biar al zakuk zaartu gerakako?

Ta segiduan onako bertso au kantatu zion:

Oso gauza zalla dek
arroa umiltzen,
baita gañera ere
tontoa abiltzen;
mundu guzîk bazekik
gu nola gabiltzen,
i ere zartuko aiz, bai,
gazteik ezpaiz iltzen. (1)

* * *

Mateo Ollokik, bere arrebaren eztaietara
juan da naiko jan da edan egin zuanean,
bertso au kantatu omen zuan:

Jan eta edan egin ditugu
izugarrizko patxaran,
iñoiz añaiko deskontenturik
eztago nere ijaran;
zernai ta ura kantatutzeko
ez naiz egongo ikaran,
inposiblia ezpaldin bada
a zer sasoia daukaran!

(1) Manuel Etxabe, Orendaiñ'en jaioa, gaur Usurbill'en Santuenea'n, bizi dana.

Errikotxia ere an zan, eta onela erantzun
zion:

Mateo onek agertu digu
berebiziko sasoya,
bertsuarekin ordaindu nai du
gaur egindako bazkaya;
gure Jainkuak ematen badit
komeni zaidan graziya,
puruba erriaz kantatuko det
diabrukeri guziya! (2)

* * *

Gau batean, Errikotxia ta Mateo peritik
etxera zetozela, onen etxe ondora urreratu
ziranean, zakurra zaunkaz asi omen zitzaien.
Orduan Mateok bertso au bota omen zuan:

Txakurra're or dago
lotuta katian,
lotuta katian,
orrek sentitu gabe
zein sartu atian?
Ori ere sartu zan
neretzat kaltian,
despedituko diyat
alakon batian.

(2) Maria Joxepa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

Ta Errikotxiak onela kantatu zuan urrena:

Zakur ori or dago
bere salatiyan,
bere salatiyan,
izan ere gabiltza
beti gau erdiyan;
orren inguruan zein
asi pikardiyan?
badirudi dagola
gure goardiyan. (3)

(1894)

BERTSO BERRIAK

Bertso auek, Errikotxiaren alaba Maria Joxepak esan digunez, Orio'ko Ayuntamentuko balkoiatik kantatu zituan bere aitak, inprentara baño leen, erriak ondo ote zeuden esan zezan; ta ala, erriak ontzat artuta, inprentatu-azi ziran.

1/ Milla zortzi eun eta gañera
larogei ta amalaubian,
misionistak izan ditugu
Orioko erri noblian,
arkitutzen naiz zabaldu edo
publikatzeko idian,
jaun oiek nola para gaituzten
gu zerurako bidian.

(3) Maria Joxepa Lertxundi, Errikotxia bertso-lariaren alaba, Andu baserria, Orio.

2/ Jesukristoren ministro onak,
Aita Espiritualak,
San Franziskoren semiak biyak,
gizon prestu ta formalak,
pulpitutikan guztiz abillak,
konfesiyan leialak,
bederatziurren batian egin
dizkigute egiñalak.

3/ Relijioso oiek onratzen
borondatez naiz asiya,
zergatik duten meritu asko
Oriyon irabaziya,
Zeruko Aita, eskatzen dizut
laguntza edo graziya,
biar bezela esplikatzeke
desio dedan guziya.

4/ Zori onian etorri dira
jaun oiek gure artera,
danon partetik abiyatu naiz
alabantzak ematera,
erri guziya jira gaituzte
bizitza berri batera,
oriyen azi ederretatik
frutu asko da atera.

5/ Izendatubaz eman nai nuke
gizon oien albistia,
Aita Frai Pedro Arrue da bat,
Frai Juan Jose Maiz bestia,
erri guztiyak estimatu du
oiek emen ikustia,
desiatzen zan baño lenago
alkantzatubak eztia.

6/ Don Antonio de Macazaga
gure parroko maitia,
merezi luke graziyak edo
alabantzak ematia,
artzai ona ta umilla degu
leialtasunez betia,
funtziyo eder au zelebratzea
bazeukan borondatia.

7/ Eskerrik asko, gure parroko
edo bikariyo jauna,
len esan dedan bezela degu
artzai leiala ta ona,
bere ardiyak guardatzera
asko enpeñatzen dana,
orreatikan ekarri ditu
jaun oiek biyak gugana.

8/ Biba Kabildo prestuba eta
biba Ayuntamentuba,
jaun oriyentzat elizarako
zer akonpañamentuba,
gutziz ederki serbitu dute
bakoitzak beren puntuba,
onra ederrian zelebratzeko
gure Misio Santuba.

9/ Graziya asko merezi dute
Ayuntamentuko jaunak,
erratu gabe egiñ dituzte
tokatzen zaizkaten lanak,
bederatziurren ontan ez dira
ejenplo txarra emanak,
minutorikan faltatu gabe
asistitu dute danak.

10/ Ditxa aundiko misiyua da
erriya ontan zelebratu,
etsai gaiztuen eskuetatik
guztiyok gera libratu,
predikadore txarrak ez ditu
parroko jaunak logratu,
oiek merezi duten moduan
eziñ nitzake onratu.

- 11/ Onetarako ez da aundiya
nere abillidadia,
jakinduriya gutxikua naiz
estudiorik gabia,
jaun oietako baten mingaña
baldin baneuka neria,
paper onetan parako nuke
esplikaziyo obia.
- 12/ Martxoa illaren ogei ta amaikan
lenbizi ziran asiyak,
berrizko pozez gelditu giñan
aditutako guziyak,
geroztik ere segitu degu
Jangoikoari graziyak,
biyotz gogorrak bagiñan ere
gaude bigundu-aziyak.
- 13/ Esplikantiak izan ditugu
zuzenak eta garbiyak,
arrigarritzko mingañaak eta
espiritubak argiyak,
Jaun Dibinuak eskojituta
orretarako jarriyak,
kasi kasikan badiruriye
zerutikan etorriyak.

14/ Persona asko egongo giñan
deskuidatubak bastante,
jaun oien biyen sermoi ederrez
mudatu geraden arte,
bat jetxi eta bestia iyo
saiatu zaizkigu fuerte,
allegatu dan guztiya emen
oso konbertitu dute.

15/ Konbertitzera egiñ digute
asko oju ta enpeño,
kasik ez dira ixildu ere
satisfatu arteraño,
lenagokua gerogokuak
aztu-azitzen du baño,
onelakorik etzan sartuko
erri (y) ontan egundaño.

16/ Jendia frankok asistitu du
albo-erriyatikan,
Usurbildikan, Zarauztikan,
igualmente Ayatikan,
pau suak pozik bota dituzte
urruti egonakgatikan,
konseju ederrak aditutzera
jaun oien biyen aotikan.

17/ Erria eta erribestea
jende askok du segitu,
gure elizak edo tenpluak
leku galantak baditu,
bañon ala ere atez barrendik
guziyak eziñ kabitu,
berandu samar juaten giñanak
kanpotik biar aditu.

18/ Iñon izango danikan ere
iñork apenas deritzan
jaun oiek biyak bezin fuerterik
predikatzea elizan,
boza altubak edo klaruak
kanpai aundiyaren gisan,
urrutixora adierazteko
txarrak ez ditugu izan.

19/ Esan digute pekatu danak
ongi konfesatutzeko,
asko ta aundiyak izanakgatik
batere ez lotsatutzeko,
milloika baldin badira ere
danaz akusatutzeko,
Jesus maitia prest daguala
guziyak barkatutzeko.

20/ Orretarako ikasi degu
zer modutan preparatu,
bost kondiziyo zuzen da ederki
dizkigute deklaratu,
trabaju ori artziak emen
iñor ez du ikaratu,
orain Jesusek sari ederrez
orra guziyok pagatu.

21/ Jaun oiek emen izanarekiñ
jendiak ez du kalterik,
danak guziyok para gaituzte
grazi ederrez beterik,
iñork etzuben deseatutzen
orren agudo juaterik,
erri onetan ez dute galdu
berrizko borondaterik.

22/ Etsaietatik Jesusengana
orra egiñ erretira,
Oriyotarrak izandu degu
ortarako egokira,
engañatuta jua ez gaitezen
atzera lengo tokira,
jaun oiek emen konbeni dira
urte bitik beñ sikira.

23/ Deboziyuan pasa ditugu
emen bederatzi egun,
oien prediku asko jendiak
apenas utsegiñ degun,
konfesatzen da komulgatutzen
eziñ konta ala lagun,
nere kristaubak, aurrera ere
ontan segitu dezagun.

24/ Dudatu gabe esan gentzake
gizon abillak daudela,
biyotz gogorra egonakgatik
biguntzen dute berela,
erri askotan predikatutzen
baldin badute orrela,
gure fediak indar obia
uste det laister dubela.

25/ Adios gure misionero
Aita relijiosuak,
sendatu eta para dituzte
gure anima gaixuak,
orretarako biziro daude
mediku baliosuak,
osasuna eman deiyela arren
gure Jaun amorosuak.

26/ Ogei eta sei bertso herritan
eman nai det despedira,
gero geiago parako ditut
biar adiña ez badira,
relijiyuko eraman zagon
aztuta gauden segida,
Jose Agustin Errikoetxiak
nai lukiana ori da.

ITURRIAK: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Joakin Muñoz-Baroja jauna, Donostian).

Bertso-paper onek lapitzez idatzitako zuzenketa asko ditu bertsoen bi alboetan. Batzuek uste gabeko moldiztegiaren okerrak zuzentzeko egiñak dira, besteak berriz, bertsoak obetzeko.

Obetzeagatik erantsitako aldaketa oiek auek dira: 4/5: pekatariyok; 6/7: zelebrazteko; 12/1: Martxo-ko; 15/1: Konbertitzeko; 17/1: Erriko eta erribes-teko; 18/4: predikatzekeo elizan.

Aldaketa oiek danak ikusita, bereala bururatzen da urrengo beste argitaraldi batentzat paratutako aldaketak izango dirala. Baita ala izan ere:

Jaun orrek berak beste bertso-paper bat ere bazuan: "Establecimiento tipográfico de los Hijos de I. R. Baroja Constitución 2". Papera au aldaketa oiekin moldatua dago.

Erakusbidetzat ar dezakegu, bertso-paper batetik bestera aldaketak nola sortzen diran.

ANTIGUA'KO MISIOARI

Antigua'n misio bat izan zan, eta Errikoetxiak bertsoak atera zituan.

Bera ibilli zan bertso-paperak saltzen. Be-

re alaba Maria Joxepa, oraindik ere oroitzen da nola ikusi zuan bere aita, kanta-paper-pilla eskuan zuala, kantari ari zala.

Bañan onako bertso ontaz bakarrik oroitzen da. Zoritxarrez, ez degu kanta-paper ori iñon ere arkitu:

Karabinero txiki polit bat
dago zeruko atian,
kontrabandorik ez da pasako
ura an dagon artian;
erregistratu bearrik ez du
mantxarrik gabe juatian,
kontzientziko kargarik gabe
ara presenta gaitian.

BERTSO BERRIAK

Onako bertso auek ere Errikotxiak jarriak dira. Kanta-paperak ez dute egillearen izenik esaten, bañan Aginaga'ko Eguzkitza baserriko (Errikotxiaren auzokoa beraz) Pedro Bidasoro'k bertso auetako bi eman zizkigun, 5 ta 6'garrena, Errikotxiak jarritako sail batenak zirala esanaz. Zorionez, jarrialdi orren, bat ez-ezik, bi bertso-paper ere arkitu ditugu: bat, osoena, 24 bertsorekin, Usurbil'ko Egaluze-txiki baserriko bertso-bilduman; papera goraizez jira guzian eba-

kita dago, ta eztakigu moldiztegiaren izena zuan ala ez. Beste papera, 20 bertsoekin, "Imp. Macazaga - Rentería"-n argitaratua ta bertan jasoa. Lenengoari segitu diogu. Bigarrengoaren aldaketak, atzean jarriko ditugu.

1/ Dozen erdi bat bertso jartzeko
naiz intentziyo fuertian,
publikatzeko zer pasa zaidan
.....'ko partian;
esposatzeko egunak ustez
ez nituban apartian,
baldin tokatu izan banitzan
kristau formalen tartian.

2/ Deklaratutzen ez naiz ariko
izena edo graziya,
.....'ko semia naiz ni
bertan jaio ta aziya,
nere auzoko dama batekin
esposatzeko asiya,
esperantzetan egon naiz baño
orain artu det etsiya.

1/4: Erriaren izena.

2/3: Erriaren izena.

- 3/ Famili ortan bizi ziraden
ama bi alabarekin,
lanian estu ziran denboran
serbitzen ziran nerekin;
amaika aldiz lagundu diyet
borondate onarekin,
gero ezkontza zerratu're bai
alaba zarrenarekin.
- 4/ Neskatxa orrek ipiñi ziran
tratamentuko segira,
gure etxian au dakitenak
geiago ere badira;
zazpi illabete ez ditut pasa
alperrik orri begira,
len asiyera bezin korajez
eman digu despedira.
- 5/ Egun batez ni segara juanda
bazeukan itzegin-naia,
galdetu ziran: "Nun senti dezu
neretzako senargaia?
Premia ere badakagu ta
allegatuba garaia."
Nik esan nion: "Gusto badezu
emango dizut anaia."

6/ Konsolatuta par-iduriyan
berialaxen zan jarri,
ta esan ziran: "Ez diyot artzen
prendarik anaia orri;
baña iñundik edo iñola
al bazintezke etorri,
uraxen baño nik neretzako
naigo zinduzket zedorri."

7/ Zer interesa zeukaten ere
garbi zuben deklaratu,
zerbait bazala idurituta
ni ere orretaratu;
natural egin kontratuba ta
ustez giñan preparatu,
gastubari ta endreduari
ez niyen erreparatu.

8/ Gauza piska orrek engañatuta
sartu naiz trata-bidian,
neroni ere ez nintzan oso
utsik juateko idian;
kontratu ori egin genduben
ustez formalidadian,
bañan etzaizkit ondo portatu
kristau kapazen legian.

- 9/ Kontratuba egin, galak erosi,
orrela prebenituta,
pregoi batekin esposatzeko
giñaden disponituta;
sesiyo-zale danen batekin
pisken bat entendituta,
uztartu gabe gelditu gera
pregoia detenituta.
- 10/ Tarte orretan esposatu da
beste alaba gaztia,
len baño indar geiagorekin
gero gelditu ezitia;
argatik, nai zan al zan lenena
amarratutzen astia,
uztarri ori tokatu zaigu
lotu baño len austia.
- 11/ Kontratutikan egun gutxira
dama orrekin naiz juntatu,
nobedadiak baziradela
beriala ziran kontatu:
“Esposatzeko ezin gintezke
orren agudo plantatu,
kontratu ori mudatu gabe
ama ez degu kontentu.”

12/ Erantzun niyon: "Gauza orrekin
zertan apuratzen zera?
Orlako zarren elusiyuak
biurtzen dira utsera;
onetaraño prebenituta
zertan gelditu atzera?"
Nik esan niyon banijuala
pregoia enkargatzera.

13/ Konformatuta gelditu zan da
au esan ziran orduban:
"Pregoi bakarra esan zaiozu,
len itzegin zan moduban."
Nunbait atsuak beste gauzen bat
ipiñi diyo buruban,
ta bigaramun-goizian berak
an despatxatu ninduban.

14/ Parroko jauna enkargatu det
desiatzen zan bezela,
kostunbratzen dan moduban gure
pregoia egin dezala;
segirarikan ez emateko,
bakarra naikua zala,
nik uste nuban urrengo astian
esposatuko nitzala.

15/ Azken baimena etzan izango
nunbait borondate onez,
atsuak zerbait esan diyo ta
mudatzen gaitza egon ez;
korajia're makala ez du
gauzak itxura duanez,
pregoia berak detenitu du
konfesatzera juanez.

16/ Goiz artan ere juan nitzaien
egin nayian bisita,
ama-alabak elizan ziran,
atiak zeuden itxita;
dama eder ori andikan laister
pregoia geldi-azita,
berialaxen despatxatu nau
zerbait esaten asita.

17/ Ez dakit nola gelditu nitzan
ibilli gabe eskubak,
azkenerako ez nizten eman
oso arrazoi prestubak;
zenbat enredo ibilli nuben
ez neuzkatziyen aztubak,
pagatu eta libratu dira
eragindako gastubak.

18/ Esperatzen zan uztar-lagunik
ez degu aseguratu,
orrelakorik pasako zala
nor kristori bururatu?
Faltik geienak alabak ditu,
au ez liteke dudatu,
kariño asko izan baziran
ezin orrela mudatu.

19/ Apartatuta gelditu gera
bartzarrak endredatuta,
bañan alare ez naiz arkitzen
ziaro ernegatuta;
nik egin nizkan erregaliyak
zizkiran entregatu ta,
beste batentzat armariyuan
antxen dauzkat plegatuta.

20/ Persona bati aditu niyon
ziradela inkapazak,
eta nerekin ere alaxen
agertu dituzte trazak;
alde batera arkitutzen naiz
apartatutako pozak,
deskontentuban bizitzekotan
nai dubenarentzat gauzak.

21/ Bi mutil gaztek esaten dirate
neri lengo egunian,
beste bi bertso ipiñitzeko
lenguen aldamenian;
dama orrengana apenas daude
oso kariño onian,
lenaz gañera koleratubak
munta kendu ziyenian.

22/ Aientzat zerbait esan zubela
mutillak zuten ikasi,
gero bidian azonare bat
ematen zitzaizkan asi;
motibo ori zala mediyo
munta pagatu-erazi,
aien dirubak artuta zuten
zerri kaskar bat erosi.

23/ Irurogeina pezeta zuten
pagatutzeko ordena,
baldin egiaz itzegin balu
ezin eskatu laurdena;
bi azaleko kopeta dala
diyote neska orrena,
artu ez dubenak egin dubela
portunarikan onena.

24/ Orra ogei ta lau bertso berri
nai ditubenak kantatu,
pasadizuen amarretik bat
alare ez det kontatu;
despatxu ori artutakuan
piska bat nintzan tentatu,
orain gauza asko bururatuta
arkitutzen naiz kontentu.

Bigarren paperak, 20, 21, 22 ta 23'garren bertsoak falta ditu. Gañerakoetan dituan aldaketak: 1/4: Gipuzkoako; 2/3: Gipuzkoako; 3/1: bizi diraden; 6/8: naiko zinduzten zedorri; 7/1: Zer dote izango zuan neskatxak; 10/5: argatik nai zan lenena; 11/3: nobedadia izan zubela; 17/6: neuzkakiyen; 18/4: nor kristauri; 24/1: Orra ogei bertso berri ipiñi.

(1911)

IGELDO'N IZAN DIRAN MISIOLARI JAUNARI

BERTSO BERRIAK

Onako bertso auek, Gazteluk eta Errikotxiak txandaka jarriak omen dira, batek bertso bat, eta besteak urrena. Kanta-papera saltzen Errikotxia ibilli omen zan.

1/ Milla urte ta bederatzireun
da amaikagarrenian,
misionistak ziran Igeldon
bederatzi-urrenien;
deskontenturik ez dute utzi
jendiaren barrenian,
para gaituzte Jaungoikuaren
grazirik ederrenian.

2/ Zeruko Aita, eskatzen dizut
laguntza edo graziya,
leziyo on bat preparatzeko
komeni zaidan guziya;
igeldotarrak garaitu degu
etsaiakiko auziyan,
kontsolatzeko modukua da
onlako irabaziya.

3/ Bi Aita prestu etorri dira
guzizko borondatetik,
pekatariyak libratutzera
etsai gaiztoen katetik;
zeruratzeko para gaituzte
guztiyok bide batetik,
Jaun Dibinuak gaurda gaitzala
herriz lengora joatetik.

4/ Nere kristauak, zan Ilbeltzaren
ogei ta zazpigarrena,
asira on bat izan genduban
misio santu orrena;
animatuta ipiñi zuten
pekatariyen barrena,
saiatu gera aprobetxatzen
oien beratzi-urrena.

5/ On Basilio Iraizoz gure
Parroko maitagarriya,
zori onian zan egun batez
Igeldo'ra etorriya;
jakingo zuben gure arteko
persona askoren berriya,
misiyuakin eragin digu
mesede arrigarriya.

6/ Artzai ona ta leiala degu,
au ez da dudatutzeko,
jai eta aste orren gogua
ardiyak kuidatutzeko;
desiorikan asko badauka
denok zeruratutzeko,
obeditzia naikua degu
au aseguratutzeko.

7/ Fede aundiko gizona dala
obrak dirade testigu,
zeru-bidia beste gauzarik
erakutsitzen eztigu;
orretarako misionistak
oraiñ ekarri dizkigu,
biyotz gogorrek bigundutzeko
onak azaldu zaizkigu.

8/ Aita Alejandro Oñate da bat,
konbeni da erakustia,
Aita Ladislao San Sebastian
deitzen zaiona bestia;
desio zuten gure animak
sendatu eta uztia,
erremediyo onak ematen
saiatu gabe ezta.

9/ Biyak dirade kaputxinuak
San Franziskoren semiak,
predikadore arrigarriyak
zuzenak eta firmiak;
jakinduriya gogorrekuak
eta memoriz erniak,
orrelakuen premi piska bat
anbat zedukan jendiak.

10/ Pulpitutikan otsegiñ dute
lendabiziko onela:
kondenatzeko arrisku edo
peligro aundiyan gaudela;
egiñ ditugun utsegiteak
konfesatzeko berela,
danak guztiyak barkatutzeko
oiek konforme daudela.

11/ Kontzientziko esamiña egiñ
biar degula lenengo,
doloria ta propositua
firme artzeko urrengo;
konfesiya egiazkua
ori dala laugarrengo,
penitentziya bostgarrenian
satisfatutzeko ondo.

12/ Oien esanak, danak guztiyak,
ongi arturik buruan,
penitentziyak egiñ ditugu
agindutako moduan;
ez genduke nai deabruakin
berriz parterik munduan,
len ere orla utzi bagindu
zer mesedia genduan.

- 13/ Enpeño asko egin digute
oiek bata beziñ beste,
onelakorik ikusitzerik
emen ez genduben uste;
barkaziyozko sermoiarekin
denok bildurtu gaituzte,
zeru-lurreko pake guztiyak
eman eragin dituzte.
- 14/ Konfesatzen ta komulgatutzen
zorrotz diyegu segitu,
zazpi urtetik gorakorikan
ez dala nago gelditu;
barkaziyuak iritxi dira
ta graziyak ugaritu,
anima garbi jartzen duanak
oiek guziyak baditu.
- 15/ Infernu ori nolakua dan
ederki degu ikasi,
aditu utsak bildurtu gaitu,
ez genduke nai ikusi;
nere kristabak egin dezagun
ara bañon len igasi,
beñ sartzen danak an biarko du
kiskali edo egosi.

16/ Zeruba dala esan digute
eder pare gabekua,
iñork esan ta pentsatu eziñ
dezakien modukua;
justu guztiyak kontsolatzeko
Jainkuak egindakua,
an sartzen danak badu betiko
ditxa zorionekua.

17/ Jaun oiek emen izanarekin
ez dadukagu penikan,
ez genekiyen orren abillik
munduan zeguanikan;
ez da besterik berdindu edo
partuko ditubanikan,
zeruetatik jetxi zaizkigu
dudarik gabetanikan.

18/ Oien sermoiak aditutzera
joaten giñaden pozikan,
zeren ez duten egiñ izketa
baliyosua baizikan;
etzaie eman mundu ontako
beste gizonen trazikan,
Jainkuak ainbat jakinduriya
badute kasik kasikan.

- 19/ Egun abetan ederki asko
ikasi degu eskolan,
maisú oberik Igeldorako
berriz topatzen naiko lan;
ejenplo onak erakusteko
gau ta egun gaude karkulan;
obe genduben joan ez balira
egun da santa sekulan.
- 20/ Estimatzeko modukua da
gizon oien nobleziya,
sendatu eta ipiñi dute
premiya zuben guziya;
len bezelaxe partitutzera
erlijiyoko aziya,
Jaunak diyela berriz ere maiz
etorritzeko graziya.
- 21/ Eskerrik asko, Aita Alejandro
ta bere lagun maitia,
erri onetan ez da faltako
beontzat borondatia;
Jaun Dibinoak disponitzian
mundutik eramatia,
Aita San Pedrok zabal deiela
zeruetako atia.

22/ Kontseju onik aditu degu
goiz eta arratsaldeko,
jendia prankok asistitu du
urrutiko ta aldeko;
parroko jauna gelditzen zaigu
oraiñ oriya ordeko,
au sano bada fede santuba
Igeldon degu gordeko.

23/ Igeldotarrak sartu gerade
betiko fede biziyan,
bitorioso atera naian
etsaiakiko auziyan;
bizi eta ill egiñ gaitian
Jaungoikuaren graziyan,
glori ederrak gozatutzeko
eternidade guziyan.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Oriamendi baserrian jaio ta Bentaberri'n bizi izan zan Lino Calonge zanaren eskutik jaso.

Bertso-papera: "Imp. R. Altuna — San Sebastián", Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu bitartez, Berriatua'ko Alzalegi baseritik pasoa.

Lenengo paperak 21 bertso ditu; 4 ta 22'garrena falta ditu. Bertso bi auek bigarrenengo paperak zituan.

Ala ere, bi auek izan ezik, beste bertso guziak lenengo paperan dauden bezelaxe jarri ditugu. Lenengo orrek konpiantza geiago ematen baitu. Ona zergatik:

Ortografia zaarra du: *escatzen*, *etsayaquico*, *ca-*

sican, guenduben,... besteak berriz gaurkora jotzen du: *eskatzen, etsayakiko, kasikan, genduben,...* Lenengo papera, beraz, erri-erriko esku batek idatzia da, ezertxo ere aldatuko etzuana; bigarren papera idatzi duan eskua, ortografia aldatzen bezela, itzak trukutzen ere saiatu zitekean.

Ain zuzen, irakurlea arreta pixka bat partzen badie emen urrena ipiñiko ditugun aldaketai, auek pixka bat garbikerira jotzen dutela ikusiko du: izenburuan adibidez: lenengo paperak: Bertso Berriac; bigarrengoak: Bertsozko Loriak.

Ortaz gañera, aldaketa oiek itxusitu egiten dute zenbait puntu: lendabiziko bertsoan, bigarren paperan, puntuak dira, *amaikagarrenian, urrenian, barrenian* eta, laugarrena, *oberenian*; onek ez du ondo ematen; bai ordea, lenengo paperan orren orde z dagoanak: *ederrenian*. 18'gn. bertsoan, bigarren paperan, puntuak dira: *pozikan, trazikan, kasikan* eta *dubenikan*; onek ere ez du ondo ematen; askozaz obeto onen orde z lenengo paperan dagoanak: *baizikan*.

Bigarren paperaren aldaketak: 1/7-8: alabatu nai nituzke al dan — modurik oberenian; 2/1-2: Zeruko Aita guztiz altsua, — eskatzen dizut graziya; 8/7: sendagai onak aplikatutzen; 10/4: perill aundiyan gaudela; 11/7: penitentziya kunplitu eta; 16/1: Zeruba dala diyote berriz; 18/4: baliyo ez dubenikan; 18/8: badute iya kasikan; 19/7: ojala biyak joan ez baziran.

IGELDO'KO MISIOARI

Igeldo'ko beste Misio bati ere jarri zizkan bertsoak Errikotxiak. Bertso-papera ez degu, zoritxarrez, iñon ere arkitu. Onako bertso ta erdi ontaz oroitu da bere alaba Maria Josefa (Andu, Orio):

Asko persona egongo giñan
fedeko gauzaz aztuta,
bestela pobre bizi geranak
pekatuz aberastuta;
projimuaren kaltian dira
gorrotua ta disputa,
alkarganako eskandaluak
ondoren onik eztuta.

aparietzi asko dutenak
ez diradela obiak,
konfesatzera juaten dirala
damutasunik gabiak.

EZKONTZA GALDUA

Bertso auek, bateonbat etorri, zer kaso zuan esan da Errikotxiak jarriak dira. Ala esan digu bere alaba Maria Joxepak, Orio'ko Andu baserrian bizi danak. Berak buruz ikasi zituan, eta orain esan dizkigun bezela

jartzen ditugu emen. Ez degu bertso-papera
 iñon arkitu. Doñua ere Maria Joxepak berak
 emana degu:

Do-zen er-di bat ber-tso jar-tze-ko o-raiñ ar-
 tu det i-di-a i-du-ri-tzen zait ba-dau-ka-da-
 la nai-ko-ar-ra-zoi-pi-di-a i-xil-ixi-lik e-gong-o-ba-
 nitz ben-tu-raz nu-ke-o-bi-a ba-ña Jain-ku-ak e-gin nin-du-
 -ben pa-zi-en-tzi-rik ga-bi-a

1/ Dozen erdi bat bertso jartzeko
 oraiñ artu det idia,
 iduritzen zait badaukadala
 naiko arrazoipidia;
 ixil-ixilik egongo banitz
 benturaz nuke obia,
 baña Jainkuak egin ninduben
 pazientzirik gabia.

2/ Zer kaso dedan itzegiteko
batere ez det lotsikan,
len andregaiia ustez banuen,
gaur arkitzen naiz utsikan;
derrepentian ezin joko det
desio nuben martxikan,
bañan mutil zar gelditutzeko
ez daukat esperantzikan.

3/ Neskatxa batek itzezin ziran
errotara zijuala:
gizasemerik gabetanikan
ederki etzeguala,
aren amak ni aspalditxuan
begiz jotzen ninduala,
gusto banuen disimuluan
azaldutzia nuala.

4/ Damatxo orren esanarekin
asko nintzan konsolatu,
zer edo nola erantzun nion
ez det nai disimulatu:
“Gauza aldrebesa ez derizkiot,
demonstre gaizto polatu!,
ortaratutzen baldin bagera
laister biagu moldatu.”

5/ Erantzun ziran: "Txit gaizki gaude
etxian gizonik gabe,
ama guria kejatutzen da,
bai eta neroni ere;
estimatuko zaitugu pozik
etorritzen bazerare,
atia *kox-kox* jo zazu eta
erne egongo gerare."

6/ Atera juanda ez nitzan asi
kolpe aundirik ematen,
ama-alabak allerta zeuden,
laister iriki ziraten;
afariya're guztiz ederra
preparatuba zeukaten,
gaba geiena pasa genduen
jan da kontuak esaten.

7/ Ezkontza ori zerratzen giñan
ustez natural asiyak,
nik ere eman nituen nere
dotiaren klarezিয়াক:
zazpi ontzurre banituela
neronek irabazিয়াক,
etxian ere berreun dukatez
omen zeudela etsiyak.

8/ Atsuak ziyon: "Zure dotia
amalau ontza aldera,
oso ez dira irixten bañan
amairutikan aurrera;
bada ni ere ez naiz jetxiko
malla ortatikan bera,
beste ainbeste emango dizkat
okerreratzen bagera."

9/ Konformatua atera nitzan
familiya orrengandik,
atzerapenik izaterikan
ez nuen espero andik;
zer izketetan partitu giñan
goguan daukat oraindik:
San Juanetako amarratzeko
al bagenduen iñondik.

10/ Alaba ori ixil-ixilik
egon zitzaigun lenago,
bañan biyotza konsolatua
an bazedukala nago;
zer naiko zuen galdetu eta
erantzutia geiago?
aren partetik jakiña zala
biyar baño gaur naiago.

- 11/ Andik beriala okasiyo bat
tabernan degu izandu,
nik ez detala kulpa aundirik
makiña batek esan du;
zenbait personak iduripena
gauza gutxitik artzen du,
famili orren borondatiak
ortatik zaizkit atzendu.
- 12/ Bi mutil gaztek nai zizkiraten
neri pastelak partitu,
berak artzeko ere etziran
toki txarrian arkitu;
merezi ere bazuten eta
ez nitzan asko kupitu,
eskoba baten kirtenarekin
biak nituen zatitu.
- 13/ Mandatari bat etxe ortara
juan zan biaramonian,
gaztiarentzat ez nebillela
oso tankera onian,
taberna aldian jartzen nitzala
klaserik okerrenian,
andria igual joko dedala
andikan natorrenian.

14/ Kontu oriyek aditu eta
oso bildurtu dirade,
despeida seko eman dirate
txit fundamentuz alare;
nere aldetik ibillitzeko
aien esperantzik gabe,
beste batera jo nai badegu
andikan libre gerade.

15/ Ikusirikan motibo gabe
despeida artu dedala,
proporziyo bat guztiz polita
izandu det beriala;
agindu gabe aldegin nion
gero egongo gerala,
iduritzen zat geiago ere
azalduko zaizkidala.

16/ Dama orrek ere atzo egifia
omen du beste majua,
nere gisako iaio xamarra
anbat da gizarajua:
taberna aldian franko zabarra,
lanian berriz flojua,
burua ere abilla ez ta
anka batetik kojua.

- 17/ Urte batzuek ere baditu,
itxuraz ez da ederra,
gorputza ez du oso bikaña
bajua eta medarra;
belarri asto galantak bañan
lepaitzekia igarra,
ai zer lastima neskatxa orri
ori erantsi biarra!
- 18/ Diru pixken bat omen du eta
orrekin dirade poztu,
diyoten aña duanik ere
kasik ezin det sinistu;
lanian gogo txikia du ta
tabernan bastante kastu,
bestek emanak bearko ditu,
berak sobraturik eztu.
- 19/ Adios, nere dama gaztia
eta zere familiya,
iduritzen zait juango zaidala
orrerako inbiriya;
asko luzatu baño lenago
billatuko det nobiya,
gaurko egunian obeto dago
emakumezko feriya. (1)

(1) Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k ere bertso auetatik geienak eman zizkidan: 1, 2, 3, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 17, ta 18'garrena; baita ere

zenbait bertso berri, Errikotxiaren alabak eman etzi-
tuanak alegia. Bere aitari ikasiak omen ditu.

Berriak, auek dira:

Postura ortan itz egin edo
agindu nion damari,
konsueloa ematen zaio
artara datorrenari:
“Asi ezkerro obeko degu
su ematea lanari,
biar illuntzean jungo naizela
esan zaiozu amari”.

Ezkontza orren printzipioa
izan zan amagandikan:
“Bi urte oetan gaizki gaudè
gizonik gabetandikan;
zeuri beste iñori ez diogu
aitatu oraiñdikan,
gure etxerako gizon oberik
ez derizkiot danikan.

Zuk badakizu etxe koskor au
nola daukagun gerea,
baztar polita ta seguroa,
au da munduko legea;
urte oietan onek daukana
ondo lagundu gabea,
lan pixka bat egin ezkerro
jarri liteke ohea.”

Orra zer gertatu zaidan
neska orren ezkontzakiñ
pakean bizi nintzan mutilla
endreau naute beñepeñ;
konfiantza aundik artu dituzu
beste mutiltxo orrekiñ,
neregatikan libre zaude ta
konpondu zaite berakiñ.

Ta besteen aldaketak: 1/3: uste det badaukatela;

1/6: askozaz nuke obia; 2/3: len andregaiia banuen eta; 2/4: oraiñ nago utsikan; 2/5: derrepentetik eziñ joko det; 2/6: espero nuen martxikan; 3/1: itz eman ziran; 3/3-4: urte auetan gizonik gabe — oso gaizki zegoela; 3/5: beraren amak aspalditxoan; 6/3: ama-alabak zai zeuden eta; 6/7: gauik geiena; pasa genduen; 7/3: nik ere bada eman nituen; 8/5: baña ni ere ez naiz jetxiko; 8/8: bazera; 9/3: atzera-pena; 9/4: ez nun esperatzen andik; 10/1: Neskatxa ori; 10/4: ainbat zedukala nago; 10/5-6: galdetu eta erantzutea — zer nai genduan geiago; 11/2: tabernan det izandu; 11/3: nik kulparik ez daukabela; 11/6: gauza gutxikin; 11/7-8: ortatik zaizkit etxe ortako — borondatiak atzendu; 12/1: nai zira-ten; 13/1: Mandatari bat neskan etxera; 13/4: oso jokera onean; 13/5: tabernan ere jartzen nitzala; 13/7: joko nukela; 14/1: Gauza oriek aditu eta; 14/3: despedira seko emanaz; 14/6: aien esperantza gabe; 14/7-8: beste batena joateko andik — libre gelditu gerade; 16/1-2: Dama orrek billatu omerdu — beste mutill bat majua;

16/5-8: buruz oso abilla ez da
 anka batetik kojua,
 famili orren diruak jateko
 ai zer aparejua!

17/ Gorputzez ez da oso liraña,
 bajua eta melarra,
 asto-belarri galantak ditu
 ta lepo-ertza igarra;
 jenioz petral xamarra eta
 lantegietan piparra...
 ai zer lastima neskatxa orri
 ura erantsi bearral

18/1: Diru pixka bat; 18/2: orrek egin ditu poz-
 tu; 18/3: dioten ainbat daukanik ere; 18/5: lanik
 etzaio gustatzen eta; 18/8: beak irabazirik eztu;
 19/3: uste det laister juango zaidala.

BERMEO'KO ASTOARENAK

I-nork ja-kin nai ba-du Ber-me-o'ko be-rrri pu-
 -bli-ka-tze-ra ni-a li-ber-tsi-yo-ga-rrri ar-
 -ku-pe-ra zi-tzai-gun as-tu-a e-to-rrri ber-
 -tso bi pa-ra-tzi-a pen-tsa-tzen det o-rrri la
 ra la ra la la la la ra la ra la la la ra la
 ra la la la la ra la ra la la

Bermeo'n, arraia pisatzeko tresnarekin zurezko asto bat jarri zuten arkupeetan. Ori zala-ta, eztabaidaren bat ere sortu zan arrantzaleen artean. Errikotxiak, Bermeo'ra-ño joanda edo eztakigu nola, bertso auek atera zizkan zurezko asto orri. Bertso asko ziran. Kanta-paperetan zabaldu omen ziran. Emen jartzen ditugun guziak Zubieta'ko Ar-

zabaleta baserriko Manuel Urruzmendi'k zekizkian buruz; 10 ta 11'garrena Pedro Bidasoro'k (Eguzkitza, Aginaga), eman dizki-gu; 12'garrena, berriz, Errikotxiaren billo-ba dan Franzisko Arruti Lertxundi'k. Doña, onek emana da.

1/ Iñork jakin nai badu
Bermeoko berri,
publikatzera nua
libertsiyogarri;
arkupera zitzaigun
astua etorri,
bertso bi paratzia
pensatzen det orri.

2/ Astua izan arren
fuerte ta bikaña,
umiltasunez badu
biar dan tamaña;
inguruban jendia
ibiltzen da baña,
eztiyogu ikusten
ostiko bat aña.

- 3/ Astoa arkupian
or dago dotore,
arrantzarikan eztu
egiten bat ere;
Bermeoko jendia
arrituta gaude,
zutik nola dagan
geiago jan gabe.
- 4/ Korputz egokiya du
eta dotoria,
erretratua dauka
tajuz ateria;
ankak zabalak ditu,
munduban legia,
bañan buru, begi ta
belarri gabia.
- 5/ Konpletorik ote du
iñongo eskiñik?
eztu leporik eta
sudur ta ezpañik;
ezta ere mingañik,
ortz eta agiñik,
ain gutxi isatsikan
Jainkuak egiñik.

6/ Lau anka ta bizkarra,
eztu besterikan,
paraje gutxitan da
olako astorikan;
iñork ikusitzeko
badu gustorikan,
erakutsiko zaio
pozik askorikan.

7/ Arraia pisatubaz
nai du galantziya,
iñork eman ezker
esku-irentsiya;
jendian artian da
difierentziya,
Madritik espero du
laster lizentziya.

8/ Madriden arkitzen da
Azkarate jauna,
enteratu naiz gizon
jakintsua dana;
paperak iritxiyak
dira orrengana,
eztu noski debalde
egin naiko lana.

- 9/ Guardianoa ere
dago borondatez,
kontu egiten dio
zintzo eta artez;
gau guzian allerto
intentziyo fuertez,
jan da eran egifiez
astuaren partez.
- 10/ Asto bat ikusi det
supizientia,
karga eramaten e
da balientia,
jan eta eran gabe
naiko aguantia...
gure astoagandik
klase mudantia.
- 11/ Asto merkiagorik
iñork ote degun:
bizkarra zabala ta
illajia legun,
jan eta eran gabe
gaua eta egun...
eztakit Maiatzian
arrotuko zagun.

12/ Kanpuan egingo zan
busti edo oztu,
legorrera sartuak
eztu gutxi poztu;
arra edo emia dan
ez dakigu justu,
Jainkuak egindako
señalerik eztu. (1)

(1) Usarbe'ko gizonak onela eman zigun 10'garrena:

Asto onen gorputza / da balientia,
kargetarako beraz, / supizientia,
jan da eran egin gabe / naiko aguantia,
gure astoagandik / klase mudantia.

ERRIKOTXIAREN SEMEA

Errikotxiaren seme bat ere, Prantxisko Mari, jaiotetxean, Muniota-zar'en bizi dana, bertsolaria izana da. Emen jarri ditugun bere bertso auk, astoarenak izan ezik, ez dira iñoiz ere paperetan atera, eta berak esanda ditugu. Jarri-aldi bakoitzean, irakurleak emen arkituko dituan baño bertso geiago omen ziran, bañan aztu egin zaizkio...

* * *

BASERRITARREN BIZIMODUA

“Gaxorik nengoan. Medikuak bolara batean lanik ez egiteko esan zidan. Orduan bertso auk jarri nituan”:

- 1/ Bertso batzuek jartzera nua baserritarren gañian,
gaita pixka bat izaten degu-
guk ere noizik beñian;
mediku batek agindu ziran
ez jarduteko lanian,
ala ta guziz arkitutzen naiz
oso umore onian.

- 2/ Esaten dute baserrietan
egiten dala okela,
alperkeriyan ez egon biar
ni orain nagon bezela;
izugarrizko deskuidoren bat
pasako zaio bestela,
mamien partez ikusiko da
ezurra eta azala.
- 3/ Txekor aundia aziko bada
etzaigu gutxi kostatzen,
apenas asko orrelakorik
ifiorik ez duen pentsatzen;
nola dan oso gauza erreza
plumarekin apuntatzen,
azitzen dunak berak badaki
txekor-diruak kontatzen.
- 4/ Basarritako lan onek eztu
barrenik eta goyikan,
astian gogor jardunagatik
ezta izaten jayikan;
asten bazera asko bezela
arin libratu nayikan,
inbustერიyak eztu egiten
txekorrik eta beyikan." (1)

Jartzalleak berak esanak. Guk kopiatzean etzan 3'garrenaz oroitzen. Bañan Donostia'ko Ion Etxaide'k Prantzisko Mariren aotik jasoak zituan leen ere. Milla esker, beraz, Etxaide jaunari.

BERTSO BERRIYAK

“Garai artan asto zar bat genduan; urdiña zan kolorez eta “Urdiña” esanta entenditzen zuan. Donostia’ra esnea eramateko enpliatzen genduan, bañan zartu eta mantsotu egin zan, etz etzuan serbitzen. Gizendu ta saltzea pentsatu genduan, bañan gizendu baño leen agertu zitzaion erostuna. Bei-jatenetarako eraman zuen gizon batek 400 pezetan. Saldu ta gero amabi bertso jarri nizkan.”

Onela esan zigun bertso auen jartzallea dan Prantxisko Mari Lertxundik, bañan etzitan gogoan lau bertso baizik. Zorionez, ordea, bertso-papera arkitu nuan nere artxi-boan. Paper ori “Imp. Macazaga — Renteria”-n argitaratua da; ez nuan kontuan artu zefi jaso nion.

- 1/ Bertso berriyak ipiñitzeko daukat desio osua,
deklaratzia pensatutzen det gertatu zaidan kasua;
etzait gustatzen molestatzia al baldin bada auzua,
neronek ere egingo al det oraingo pasadizua.

2/ Nik asto zar bat saldu nayian
aspalditxuan nenguan,
beste gauzarik etzan jarritzen
beñere nere buruan;
gizendu eta ipiñi naian
baliatzeko moduan,
uste baño len erostun on bat
azaldu da inguruan.

3/ Zorionian gertatu zaigu
erostuna agertzia,
ta guri ere gustatzen zaigu
gastatu gabe artzia;
ogei urtian serbitu gaitu,
eztigu galdu etxia,
asto zar arrek etzun merezi
gizendu gabe saltzia.

4/ Lengo neguan triste-antzian
zan asto ori egondu,
goizian goizo abiyagatik
allegatuaz berandu;
jotziak ere baliyo ez ta
atzetik biar lagundu...
orlako lanik ez genduke guk
beti Maiatza bagendu.

5/ Ijito bati eskatu niyon
nik milla pezta justuba,
erantzun ziran: "Ez al zaude zu
burutik oso nastuba!
Eman zaiozu al dan guztiya
belarra eta pensuba,
udaberriyan arrotzen bada
egingo degu tratuba".

6/ Ijito oiek engañatutzen
jakiten dute ederki,
esan ziraden: "Asto ar oiek
merkatu dira galanki,
bazter guztiyak endreratzera
etortzen dirade beti".
Larogei duron saldua daukat
neronen erriko bati.

7/ Aspaldi ontan desiaturik
zan orlako bat artzeko,
suerte on bat izan du orrek
astoa merke sartzeko;
indar faltikan eztauka arrek
belarra karriatzeko,
Maiatz-ill ori oso ona da
orrelakuak saltzeko.

8/ Neguba triste pasatu zuban
nun-nai egiñaz balantza,
da solamente ez dago orain
sujetatutzen erraza;
saltoka dabill gelditu gabe,
noiznai atera arrantza,
arritutzeko modukua da
orrek egin dun murantza. (2)

9/ Famili ori izan biar du
oso tratuban abilla,
leku askotan ibilliya da
asto merkiaren billa;
bizkar-ezurra zorrotza baño
ez dago oso debilla,
saiatzen danak merezi du ta
aprobetxatu dedilla.

10/ Mundu onetan ez degu danok
beti suerte berdiña,
iñork ez dauka kulparik emen
nik tratu txarra egiña;
ijituak e agertu ziran
nere kalterako grifña,
paperarekin artu biarko
or galdu dedan ordaña.

(2) Saldu ondoren, Maiatzean arrotu egin baitzan.

11/ Lengo batian etorri eta
gizon batek esan zian:
"Zuk saldu dezun asto zar ori
ez al da merke-antzian?"
Lenago ere orrelakuak
aritzen niñun etxian,
ta pena oiek aztuko dira
kanta-paperak saltzian.

12/ Orra amabi bertsoan jarri
gertatutako istorik,
tratu orrekin ez degu egiñ
famiyako gustorik;
esanaz daude: "Iñon ez dago
preziyo ortan astorik",
denbora junda orain damutan
ez gaude alper gaiztorik.

Asieran esan degun bezela, bertso auen egilleak buruz lau bertso zekizkian. Lau bertso oiek, 2, 3, 4 ta 8'garrena dira. Bañan etzizkigun esan liburuan dauden bezelaxe, zenbait aldaketa erantsirik baizik. Aukera ona degu, beraz, bertsoak, egillearen buruan ere, pixkabanaka nola aldatzen diran ikusteko:

2/2: aspalditikan neguan; 2/5: gizendu eta nai nuen jarri; 2/8: gertatu zat inguruan; 3/3: ta neri ere gustatuzen zat; 8/1-2: Lengo neguan or ibilli det — noiznai egiñez balantza; 8/3: ta solamente orain eztago; 8/5-6: zalapartaka or dabil beti — saltoa eta arrantza.

“ERREJIDORE BAT...”

“Gure etxe azpian, Muniota azpian alegia, bide zar bat zegoan, Erretzabal’ko karre-arria Longanera eramateko.

Bañan bide ori itxi egin zuten. Geroztik buelta aundia egin bear izaten zan, eta, laburtzeagatik, beste bide berri bat egitea pentsatu zan.

Orduan bertso-mordoxka bat jarri nuan.

Errejidore bat etorri ta
artu zizkigun neurriyak,
bi bire-buelta or daduzkagu
guk orrentzako jarriyak;
lengo zar orrek eztu eskerrik,
askoz geiago berriyak,
a zer dantzatuk artu beaitun
Erretzabal’ko arriyak.” (1)

MUTIL ZAR TRATALARI BATTI

“Onako bertso auek mutilzar tratalari batti jarri nizkan.

An da emen askotan kantatu izan ditut lagunen artean. Egun batez, Bentan giñala, tratalari ori bera ere gurekin tokatu zan.

(1) Jartzalleak berak (Prantzisku Mari Lertxundi, Muniota, Orio) esana.

Lagunak bertso auek kantatzeko eskatu zidaten, baita nik kantatu ere. Ta tratalari orrek par asko egin zuan, beretzat zirala ez baitzuan pentsatu ere.



Ber-tso be-rrri ba-tzu-ek nai niz-ka-ke ja-
 -rrri e-men i-bi-lli-tzen dan tra-ta-la-ri o-
 -rrri batzuk nai du-te ja-kin mu-till-o-rr-en be-
 -rrri en-te-ra-tu be-au-na nē-ga-na e-to-rrri.

- 1/ Bertso berri batzuek
 nai nizekake jarri
 emen ibillitzen dan
 tratalari orri;
 batzuk nai dute jakin
 mutill orren berri,
 enteratu nai duna
 nigana etorri.

2/ Beiak ekartzen ditu
esnerikan gabe,
etekiñikan ezin
kendu iñola're;
ernari dala esan
antzua bada're...
orren malezik ondo
ikasita gaude.

3/ Beti egin nayian
bei oiekin truke,
etxian dan txarrena
eman biar guk e;
bere buruarentzat
len ainbeste neke,
praile juango balitz
askoz obe luke.

4/ Biaje asko digu
gugana egiña,
geienian gosiak
etortzen da baña;
ematen ari danak
artu biar tamaña,
bestela jango luke
zaldi batek aña.

5/ Biaje bat egin du
andregaiian billa,
iñori ez gustatzen
olako mutilla;
tratu oietan ezta
entero abilla,
emendik libre da ta
or konpon dedilla. (1)

6/ Gauza txarrik geiegi
jartzera ez nua,
trajen bat ba omen du
etxian jasua;
ala egia dago
bati abisua,
emen dabilkiñ ori
ez da galosua.

7/ Zenbat urte dituan
nik ez det aditu,
berrogei ta amar bat
gutxiñez baditu;

(1) Andregai egin nai zuan emezortzi urteko neskatxa bat, bañan etzuan logratu.

betiko mutil zarra
ez du nai gelditu,
komeri izugarrîk
ikusi biaitu." (2)

(2) Jartzalleak berak (Prantxisku Mari Lertxundi, Muniota-zar, Orio) esanak. Guk kopiatu genizkanean, etzan 3, 5 ta 7'garren bertsoetaz oroitzen. Bañan, lendabiziko jarri-aldian bezela, Donostia'ko Ion Etxaide'k leen kopiatuak zituan bertso auek, eta onen bidez eskuratu ditugu. Milla esker.

ERRIKOTXIAREN BILLOBA

Ta Errikotxiaren billoba ere, Frantzisko Arruti Lertxundi, bertsolaria da. Orra, beraz, bertsolari-jatorri au irugarren gizaldiraño nola iritxi dan. Lagun-artean kantatzen du; plazetan ez. Ta, guk dakigunez, bi bertso-jarri-aldi auen egillea da:

BERTSO BERRIYAK

Bertso auek, 19 bat urteko mutilla zala jarri zituan; paperak saltzen, Orio'ko Artxiola zana ibilli zan.

- 1/ Bertso batzuek ateratzeko barrenak agindutzen nau,
Zeruko Aita, argi zaidazu
entendimentu illun au;
obra onetan pasa ditugu
elizan bederatzi gau,
fedia degun jende geienak
egiñala egiña deu.

2/ Beatzi gautan izan ditugu
Aita San Josen nobenak,
mundu onetan egin diteken
misteriyorik obenak;
eskeñiyaz sendatutzeko
gure anima errenak,
gauz ori ontzat artuko zuben
konprenditutzen zubenak.

3/ Lendabiziko esaten gendun
Salbia, Agur Erregiña,
mundu ontako giyatzallia,
milagro asko egifña;
beifne mantxarik izan gabia,
gloriyosua ta fifña,
Aita San Josen esposa izana,
Ama Maria Birjiña.

4/ Salbia esaten egiten gendun
lendabiziko jarduna,
iduritzen zat Amaren itzak
ote neguen entzuna;
jaiotzatikan sortzez garbiya,
guziya berak al duna,
Jaungoikoaren doaiarekin
Seme bat izan zenduna.

5/ Seme ori zer zan esan biar det,
badaukat fakultadia,
Zeruko Aitak eman dirana
eskatu bañan obia;
suspiriyoz ta negar egifiaz
mundu ontan ibillia,
guri erakutsi eziñikan
zeruetako biria.

6/ Egun oietan ibilli degu
guzizko deboziyua,
Salbia esanda ondorenian
gero errosariyua;
Aita San Joseri eskeñiyaz
datorkigun eriyua,
beti eduki biar genduke
olako amoriyua.

7/ Errosariyua asten zanian,
ango jendiak orduan
San Josengana deboziyua
gogor edukitzen zuan;
eskari on bat egiten gifiun
bizi geranak munduan:
komeni da-ta zerura artu
gaitzazu zere onduan.

- 8/ Gero jaun batek modu onetan
eiten ziyonian ekiñ,
esku batian errosaiuak,
bestian librubarekiñ;
eskatzen zuban: Aita San Jose,
izan nai degu zurekiñ,
libra gaitzatzu destierrozko
ibillera gaiztuakiñ.
- 9/ Ez dakiyanik baldin badago
jarri nai nuke kontua,
lengo oraziyo orren onduan
asitzen gendun kantua,
esan egiñaz: Jesusen Aita-
orde zoriyonekua,
zera munduko gizon guziyen
parerikan gabekua.
- 10/ Eliz barrenen asitzen giñan
modu orretan kantari,
merezitubak ditu ondo ta
doatsu Aita San Jose;
mundu onetan ibilli zuna
erakutsitzen danari,
ia segitzen diyen guztiyak
orren ejenplo onari.

11/ Egunka lagun juntatzen giñan
Aita San Josen ondora,
bereganao intentziyuan
santu zarraren modura;
funtziyo ori bukatutzen zan
asi ta andik bi ordura,
iru Abe-Mari errezatuta
irtentzen giñan kanpora.

12/ Parroko jaunak otsegin zigun
aurregoko igandian,
funtziyo ori asiko zala
gaubeko zazpik aldian;
oi adituta jendia jarri
ein zan beregan fedian,
segitu ere ala egin degu
guzizko umildadian.

13/ Basarritikan etortzen ziran
ordu beteko bidian,
elizan zegon funtziyo ortan
errezatzeko idian;
eta ez det uste iñor gelditu
egiten zanik kalian,
ia onela jarraitzen degun
berriz urrengo urtian.

14/ Damututa ez det iñor ikusi
funtziyo ortan asiya,
San Josengana eduki gendun
deboziyo bat aundiya;
mundu onetan eman zaiguzu
pakea eta graziya,
gero iltzian zere onduan
eternidade guztiya.

15/ Lendabiziko bertsuak ditut,
oaindik gaztia naitzatzu,
paper au ala ditatu arte
izan det asko abusu;
zure itz onak adierazten
ustez arituba nazu,
gaizkirik jarri baldin badizut
barkatu biar dirazu. (1)

UDARREGI ZANA

Udarregiren omenaldirako (1966/V/22) bere erretratua arkitu nai izan zuten usurbildarrak; guztizko egiñalak ere egin zituzten, bañan alperrik.

Ori jakiñik, onako bertso auek jarri zi-

(1) ITURRIA: Bertso-papera: "Elustondo — Zarauz", Ori'ko Gregoria Ibargoyen zanarengandik.

tuan Errikotxiaren billobak, Udarregi zer-nolakoa zan adieraziaz.

Udarregi, bera jaio bañon askoz lenago illa zan, bañan etxean bertan zuan ezagutu zua-na: bere ama, Maria Josepa Lertxundi.

1/ Juan Jose Udarregi
lengo ezaguna,
oraindik e izenez
ala deguna;
bat etorri zat ura
ezagutzen zuna,
bere izatea zer zan
agertu nai duna:
“Biyotzez biguna
eta euskalduna,
gorputz aundi duna,
arpegiz biguna,
orduko aitonetan
ederrentxuna.”

2/ Jarraitzen du esanaz:
"Eztaukat aztuba
gorputza etzuala
oso bajuba;
naiz urte batzuk izan
tentia ta altuba,
flako samarra baño
ondo kuidatuba;
buru-zurituba,
gutxi okertuba,
kopet alaituba,
musu-gorrituba...
amaika naigabetu
alegratuba.

3/ Abarka oñetakoa
etxian josiya,
galtza pare ederra
illun gorriya;
ttantto dun alkandora
izatez txuriya,
gerriko on batekin
lotuba gerriya,
blusa beltz berriya
sorbaldan jarriya,
txaleku lasaya,
txapela aundiya...
orduko egunetako
modan jantziya.

4/ Gizon ospetsua zan
bere egunetan,
asko txoratzen gifian
itz legunetan;
zein etzan arrituko
arren jardunetan?
bazan zer ikasiya
berai entzunetan;
bertsozko lanetan
zuzena benetan,
erriko plazetan
eta tabernetan
umilla ta apala
leku danetan.

5/ Idatziya bazuen
kanta-papel onik,
bertso bat txarrik etzan
ari entzunik,
eta irakurgaitan
jarri egin zunik,
munduan zabaltzea
komeni etzanik;
naiz urteak juanik,
galdetutzen det nik,
zein dan euskaldunik
gogozko eztitunik?
noizik bein letutzer
deitz'ezkaitunik?

6/ Bere baserriyan zan
ain gizon umilla,
nekazaritzan berriz
oso abilla;
aitan ari zanean
mingaña ixilla;
jaiean eliza ta
broma baten billa,
eskuan makilla,
jetxi Usurbilla;
arren bertso-pilla
bat bezela milla;
gaur e zeruan ala
ari dedilla!”

BENTA BERTSOLARIA

Inguru artako beste bertsolari bat, "Benta" zan. Franzisko Etxeberria zeritzan. Errikotxiaren lagun aundia au ere.

Benta deritzaion etxean bizi zan, eta ortik zetorkion izengoitia.

Benta etxe ori, mendiz Orio'tik Donosti'ra goazela, mendiaren gain-gaiñean dago, toki askotatik ederki asko ikusten dala.

Garai batez Orio ta Donostia bitarteko benta zan, eta, gaurko egunean ere, edariak-eta serbitzen dituzte, bai inguruko baserritarrai ta bai andik barrena egokitzen diran mendizaleai.

* * *

Egun batez bazetorren Benta bertsolaria Orio'ko kaletik bere etxe aldera, eguardi aldean.

Muniota'tik pasatzean, geldi-alditxo bat egin zuan.

Etxe aurrean, itzal aundiko intxaur bat zan. Aren azpian exerita ta sagardo edanez, kontu kontari ta bertso kantari egon oi ziran askotan Benta, Longa, Itxaspe... ta bertako etxejoauna zan Errikotxia.

Onen seme Prantxisko Marik aterako zion, egun artan, Bentari txarro-sagardoa. Baze-kian onek, ordea, Prantxisko Mari ardi moztan asia zala. Lan onetarako lagunak bearizaten dira beti, ta, orregatik, onako bertso au bota zion Bentak:

Etorriko al zera
ardiak moztera?
biyar goiz-goizetikan
nua ni moztera;
ni etorriko nazu
auzo serbitzera,
alkarri lagunduaz
projimo amatzera (1)

Dofiu onekin kantatzen omen zuan Bentak zortziko txikia; Maria Joxepa Lertxundi'ri artua da:

(1) Maria Joxepa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba eta Prantxisko Mari orren arreba, Andu baserria, Orio.

E-to-rrr-ko al-tze-ra ar-di-yak moz-te-ra bi-
yar goiz-goi-ze-ti-kan nu-a ni as-te-ra
ni e-to-rrr-ko na-zu au-zo-ser-bi-tze-ra
al-ka-rrr-lagun-du-baz pro-ji-mua a-na-tze-ra

* * *

Bein batez, Benta bertsolaria, baserritar kuadrilla batekin, Orio'ko peritik etxera zijoan. Orio'ko peria illaren azkeneko larunbatean izaten zan. Lagunak tentatzen asi zitzaizkan Bentari, onen alabakgatik au ta ura esaten bromaz. Orduan Bentak bertso au kantatu zien:

Aspaldin badaukate
makiñat aitamen,
jendiak ikasi du
dama oiek nun dauden;
Pilar eta Iñazi,
gaztiena Karmen,

neskatx ederragorik
ikusi al dek emen? (2)

* * *

Orio'ko Benta baserrirako bidean, Longa baserria dago. Bertako nagusiak —berari ere Longa esaten zioten— artalde eder bat zuan, eta bere arrokeri guzia, inguruko bildotsik onenak eukitzea omen zan.

Benta bertsolariak bazekian ori, eta ortik sartzen zizkion eztenkada guziak, bertso bat edo bi boteaz, kaletik etxerakoan, Longaren artaldearen paretik pasatzen zanean.

Longa asper-asper eginda zegoan orrekin, eta, bera bertsolaria ez bazan ere, bertso bat pentsatu zuan, Bentari kantatzeko.

Ala, urrengo aldi batez, Longak, oi beze-la ardi zai zegoala, Benta bidetik zetorrela ikusi zuanean, bat-batetan eta aurrea artuta, buruan ondotxo borobilduta zeukan bertso au kantatu omen zion, *Bautista Bazterretxe*'ren bozan:

Errekoño, puñeta,
karajo ta koño,
loitan sartuko al aiz,
sartuko al aiz loitan,
ipur-zuloraño!

(2) Franzisko Peña, Etxaiz baserria, Orio.

Ez, olako bildotsik,
ez, etziok Bentan,
ez-ezik errekoño,
errekoño ez-ezik
errekoñuetan! (3)

* * *

Jai-gau batez, berandu xamar, Orio'ko ka-
letik bere etxe aldera zijoan Benta. Munio-
ta parean pasatzean, gelditu eta onako ber-
tso au kantatu zion bere lagun aundia zuan
Errikotxiari:

Señor Don Errikotxia,
egongo zera oyian,
erretiratu eta
zere garayian
ni oraintxe nator zerbait
itzegin nayian,
biyok egongo gera
urrengo jayian. (4)

* * *

Benta gaxorik egon berria zan. Artean
sendatu berrian, bazijoan peritik etxera. La-
gunak galdezka asi omen zitzaizkan:

(3) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-
lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(4) Franzisko Peña, Etxaiz baserria, Orio.

—Gaixorik egon omen zera, e?

Gero toriatzen asi zitzaizkan. Orduan Bentak bertso au kantatu zuan:

Propiyo bat atera
zan gure etxetik,
bialduba nuan nik
goizian goizetik;
etorri ta esan ziran
lenbiziko itzetik:
salbatuko naizela
oraingo gaitzetik.

Alegia, medikuak ori esan ziola. (5)

* * *

Bentaren semea, Inazio, andregaiarekin asia zan. Ori zala-ta, onela esan zion Bentari lagun batek:

—Erraña etxera ekartzeko omen zaude!

Ta Bentak:

—Bai.

—Merezi luke, ba, orrek bertso bat!

—Botako det ba.

Ta onela kantatu zuan:

(5) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.

Nere semiak andria laister
biar omen du ekarri,
eztiyet ezer aditzen baño
alaxe diyet igarri;
gazte dirala amoriyua
artu diyote alkarri,
mundu onetan biziko danak
zerbait biar du pozgarri. (6)

* * *


Benta bertsolaria bat-batetan il zan. Ondozik zegoan, bañan, etxean ezin etsirik, arditara joan zan. Ardiak Etxaiz baserri alde-runtz, mendiaren ego-aldeko egalean, zitu-
tuan. Etzan geiago itzuli. Ilda arkitu zuten atakeren batekin.

Arrizko gurutze txiki bat jarri zioten Benta'tik Orio'rako bidearen ertzean. Il zan to-
kia, beeragoko zokoan dago; bañan an ja-
rrita iñork ikusiko etzualako, goien jarri
zuten, jendeak, igarotzean, ikusi ta errezatu
zezaion.

Onegatik beragatik itxas-bazterreko arkai-
tzetan il zan gazte batena ere, Bentaren gu-
rutze ondoan ipiñi zuten.

(6) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.
Franzisko Peña'k ere (Etxaiz baserria, Orio) eman
zidan bertso au, ta berdin xamar eman ere.

Onak letrak erdi borratuak dauzka, ba-
ñan oraindik ere irakur ditezke. Onela da:



ITXASPE BERTSOLARIA

BIZITZA

Itxaspe bertsolaria, "Ignacio Antonio Izaguirre y Sarasua", Azpeitia'n jaio zan, 1857 urteko Martxuaren 14'an, goizeko zortziretan. (1)

Gurasoak zituan: "José Ignacio Izaguirre", Azpeitiarra, ta "Micaela Ignacia de Sarasua", Aiarra.

Aitaren aldeko aiton-amonak: "Francisco Izaguirre" ta "María Josefa de Otamendi", Azpeitiarrak; amaren aldekoak: "Santiago Sarasua" ta "Josefa Ignacia de Unsain", Aiarrak.

Ama pontekoa: "Ignacia Antonia de Sarasua", Aiarra.

Orio'ko Usarbe baserrian erdi lengusuren batzuek izan bear zituan. Onera etorri ta emendik prestatua izan bear zuan ezkontza Itxaspe baserrirako, artean oso gaztea zala.

(1) Azpeitia'ko elizako 15'gn. bataio-liburua, 240'gn. orri-aldean.

Orregatik erantsiko zioten Itxaspe izengoitia.

Orio'ko baserri au, itxas-ertzeko arkaitzen gañean dago, Kukuarri mendiaren ipar-aldeko egalean, izugarrizko bakardadean.

Bi bizitza ditu. Oietako batean andre alargun bat bizi zan, bi bereak eta beste bat Fraisoro'tik ekarri zituan seme-alabekin. Alargun onekin ezkondu zan Itxaspe.

“Luisa Francisca Azurza” zeritzan, eta Azpeitiarra zan bera ere. Senar-emazte auek alkarrekin diferentzi aundia izan bear zuten urtean, itxura ere ala omen zuten da.

Aur bat izan zuten, alaba, Maria Joxepa izenez, aita bezelako aundi eder bat.

Parrandero xamarra izan zan Itxaspe bertsolari au. Ez emen zekian idazten ta ez irakurtzen ere. Ta etzuan bertso-paper bat ere jarri. Bai, ordea, aotik aora erruz kantatu Orio alde orretan. Beste erritara oso gutxi atera baitzan.

Orain emen jarriko ditugunak, erriak buxuan gorde ta guk beraren aotik jaso al izan ditugunak dira.

Andrea, 80 ta geiago urterekin il omen zan. Ta Itxaspe berriro ezkondu zan, etxean zuan neskamearekin. Oso emakume piña, langillea ta saiatua omen zan. Orio'ko ala-

ba zan, eta "Patricia Luisa Usandizaga" zeritzan.

Bañan baserria utzi eta kalean jarri ziran bizi izaten, kanposantutik Orio'ra goazela, kaleko lenengo etxean. Andik aurrera jorri-lean ari izan zan Itxaspe.






Bigarren andre au ere ilda, alargundu egin zan berirro. Bera herriz bat-batetan ildan.

Gau batez etzan etxera etorri, ta, biaramonean, 1932 urteko Abuztuaren 22'an, ilda arkitu zuten Antilla deritzaion tokian (2). Buruko atakeren bat izan zuan, *congestión cerebral* elizako eriotz-agiriak dionez; 76 urte zituan.

* * *

Itxaspek, onako doñu auek erabiltzen zituan geientsuen: lenengoa, zortziko txikia, ta bigarrena, zortziko aundia kantatzeko: Errikotxiaren billoba dan Kristino Arruti Lertxundi'ri jasoak dira:

(2) Antilla, ibaiaz eskubitara, erritik itxasora bitartean dauden baratzeak esaten zaie.



ERRIKOTXIA TA ITXASPE

Egun batez, Itxaspe, lau arkume astoaren gañean artu ta Donostia'ra joan zan aiek saltzera. Saldu ondoren, Salsamendi, Orio'ko kotxeroa, topo egin zuan tabernan.

Salsamendi ori bi zaldiko kotxearekin ibiltzen zan, Orio'tik Donostia'raño karga ta enkargu guziak eramaten.

Itxaspek esan zion:

—Naiago nuke Oriyo'n banego!

Ta Salsamendi'k erantzun zion:

—Eramango aut, motell!

—Ni bai, bañan astoa?

—Eramango diat astoa ere!

Artu astoa, lau anak lotu ta kotxearen gañean jarri zuten.

Errikotxiak jakin zuan ordea kontu guzia, ta, urrena Itxaspe ikusi zuanean, bertso au bota zion:

Donostiyatik Oriyoraño
iru orduko bidia,
nekatu gabe etorritzeko
atera digu idia;
kotxerua're tokatu zaio
kunplimenturik gabia,

duro batian ekarri ditu
astua eta jabia. (1)

* * *

Itxaspek, iru egun parrandan pasa ondo-
ren, Errikotxiarekin topo egin zuan, eta
onek puntu au jarri zion:

Lengo egun oietan
nun zerade izan?

Ta Itxaspek onela erantzun zion:

Batzuetan tabernan
bestian elizan,
opor egiñak ditut
askotako gisan,
irugarren goizian
etxeratu nitzan.

Errikotxiak, berriro ere, puntua jarri
zion:

Zure andre Luisak
zer ziyon orduan?

(1) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxiaren alaba,
Muniota, Orio.

Onen anaia dan Prantxisku Marik dionez, Itxaspek
berak bota zion bertso au bere buruari; ta aldaketa
auiek egiten ditu: 4: degu; 5: kotxerua're billatu
degu; 6: kupirarikan gabia; 7: ekarri gaitu.

Ta Itxaspek:

Ez nitzala etorriko
etsi omen zuan,
preparatu nitzaion
ondradu moduan,
beñe baño obeto
gosaldu genduan. (2)

* * *

Inazio Itxaspe bertsolaria parrandatik zetorren. Ikusi zuan Errikotxiak eta onela kantatu zion, bertso-asiera emanaz:

Inazio au etxe aldera
gaur ere ez dago joanikan...

(2) Maria Josepa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

Lenengo bertsoa naiko ezaguna da Orio-Aginaga inguruan, eta guziak berdin xamar ematen dute.

Bigarren bertsoa, berriz, Maria Josepari eta Pello Saikola'ri bakarrik jaso diet. Onek beste onela eman zidan:

Zure andre Luisak
zer ziyon orduban?
Preparatu zitzaidan
asarre moduban,
umill eta seriyo
itzegin genduban,
beñere baño obeto
gosaldu genduban.

Itxaspek, ordea, bazeukan etxean Errikotxiak berari saldutako bei bat, oso esne gutxi ematen zuana, ta onela jarraitu zion bertsoari:

Etxera joanda esnia biltzen
ez dadukagu lanikan;
gure etxian allegatzen dek
ganadu klase onikan,
uztarrirako ona izan bazan
batere ez nian penikan. (3)

* * *

Errikotxiak onako bertso au bota zion Itxaspe bertsolariari, perian alkar topatu zuten batean:

Zure andrian permiso gabe
etorri zera periâ,

(3) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxiaren alaba, Andu, Orio.

Errikotxiaren semeak, berriz, (Prantxisku Mari Lertxundi, Muniota, Orio), beste onela eman zidan:

Itxaspe au ere emen zebillek
etxera gabetandikan...
Juanda ere etzedukagu
esnia biltzen lanikan;
gure etxera allegatzen dek
ganadu klase onikan,
uztarrirako baliyo bazun
ez nian izan penikan.

len bezelaxe ikusitzen det
zure enpermedaria:
kale aldera etorri zera
betiko mozkorkeiâ,
eztakigu noiz artuko dezun
etxeratzeko iria.

Itxaspek erantzungo zion, bañan ez da bertso au gorde. (4)

EMAZTEA

Itxaspek, bein batean, bertso au kantatu omen zuan bere buruagatik. Orio'ko Alberdineko tabernan.

Nere andre Luisa
deskalabratuba,
gizon kaxkar bat badu
beretzat artuba,
ona zibelakuan
txarra gertatuba,
ajolarik gabeko
malapartatuba.

Entzuten zeuden batzuek, bertsoa aditu ta ikasi egin zuten, eta, andik egun batzuetara,

(4) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

Itxasperi berari kantatu zioten, bañan oso asarretu omen zan.

Gero Gazteluri erakutsi zioten bertso ori, ta onek, urrena alkarrekin gertatu ziranean, kantatu egin omen zion; bañan Itxaspe asarre ta ixil-ixilik gelditu omen zan, ezer erantzun gabe. (1)

* * *

Itxaspe baserriak, leen ere esan dan beze-la, bi bizitza zituan. Beste bizitzako mutilak —Manuel Irastorza zeritzaion— iñorkin-karga asko eramaten zuan Orio'ra. Ta, itxura danez, emazteak etzion beste konturik aitatzen Itxaspe bertsolariari. Ta onek bertso au kantatu zuan bein batez:

Lenguan emaztiak
esan ziran neri:
Manuelek ekartze'ula
iñorkiña lori,
azkar ekartzen diyo
falta duanari,
mutil prestua dago
gizarajo ori.

Ta Manuel oni berari, au ezkontzera zijoa-

(1) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

nean, pregoietako garaian, onako bertso au bota zion:

Manuel onek dauka
aspaldiyan sona,
kupirarikan gabe
egiten du lana,
etxera omen dakar
laister andre ona,
berekin daduzkana
galtzak eta gona. (2)

* * *

Gau batean Itxaspek botatako bertsoa, bere andreak aterik idikitzen etziolako:

Ordubiterdik dira,
oraindikan goiz-ta,
berez zabarra dana
zintzotutzen gaitz-ta;
atia iriki zazu,
nere andre maistra,
urrenguan goizago
etorriko naiz-ta. (3)

* * *

(2) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(3) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

Beste batzuek, Artzai-Txikiya bertsolariarena bezela jotzen dute bertso au.

Txokolateneko tabernan puntu au jarri
omen zioten bein batean:

Zure andria lanian
ernegatzen beti...

Ta Itxaspek:

Juan dan aspaldiyan
ori dabil gaizki,
nigana alperrikan
etorri zan noski,
nigana zan ezkerro
ikusten du petri. (sic) (4)

* * *

Gauerdi batean, Itxaspe bere kuadrillare-
kin tabernatik etxera etorri zan; ate-joka asi
zan, bañan bere andreak aterik idiki ez. Or-
duan bertso au kantatu zion:

Nere andre Luisa,
iriki atia,
emen gaizki nago ta
agertu zaitia;
etzait asko kostako
berriz joatia,
alperrik dezu gero
pena izatia! (5)

(4) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.

(5) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

TABERNAN

Bertso au Orio'n, Martiñenean, kantatu zuan Itxaspek:

Jaten ez baldin bada
egiten da plako,
munduban gertatze'ira
makiñat olako;
nik etzaitut nolana
txokuan lagako,
anparatutzen zaitut
fiña zeralako. (1)

* * *

Indiano batzuek Amerikara joateko despeira zuten Orio'ko Txokolateneko tabernan. Andik irteerakoan, Itxaspe bertsolaria ikusi zuten kalean, eta kuadrillan zuten bertsolari batek, bertsoa bota zion, "orain ere mozkortuta al zaude?" esanaz. Ta Itxaspek onela erantzun zion:

Len e jakingo dezu
mozkortzen naizela,
ardua eraten dizut
sekulako gala,

(1) Pello Saikola bertsolaria, (Pedro Aranburu), Orio.

antzemanagatikan
obia eztala,
oraiñ ementxe nabil
umia bezela. (2)

* * *

“Donato txikiya” deitzen zioten gizon bategi, apustua egin zuan Sillero-soro’ko artoak jornada batean eraman baietz; bañan kargaren geiegiz eta ezin karriaturik, idiak anak autsi zituzten. Gero Itxaspek au kantatu omen zion:

Sinistekoak ez dira
Donaton esanak,
Sillasoro’ri eman dizka
egundoko famak;
jornâ baten artu nai
ango arto danak,
anka biyak autsita
an ziraden lanak! (3)

* * *

“Frantzesia” bertsolariari Itxaspek, bein batean, bota zion bertsoa:

(2) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(3) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

Frantzesari lanian
egin zaio aztu,
eta mozkorkeriyak
beti oi du poztu;
arrote pobre onek
dirurikan eztu,
berriz ere mutil zar
egon biarko du. (4)

* * *

Itxaspek, Orio'ko Txokolateneko tabernan
zegoan batean, onako bertso au bota zion,
emakumeak pakean uzten etzekian bizar-
-kantzalle bati:

Atso zirikatzaile
bizar-kantzallia,
puerkeri, demoniño,
ajolagabia;
gosêk iltzen etxian
an dauka andria,
onek merezi luke
bizkarra austia! (5)

* * *

(4) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

(5) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsola-
lariaren biloba, Andu baserria, Orio.

Beste egun batez ere, Itxaspe Txokolatene-ko tabernan zan. Bertsotan ari zan, baña bakarrik, kontrariorik gabe. Iñor kantuan asiko ote zan galdeturik, onako bertso au bota zuan:

Ni ementxe ari naiz
erdi mozkortuta,
ikusitzen nazute
agure zartuta;
iroi t'amabost urte
nago igarota,
nai dezuten guziyak
nei bertsua bota.

Alare iñork etzion erantzuten. Jendearen artean Zarautz'ko Ola'ko Jose Mari zegoan, bertsotan poliki xamar egiten zuana, bañan Itxasperekin ausartzen etzana. Ta Itxaspek bertso au bota zion:

Itzegin biar dizut
gizonak bezela,
ikusten zaitualako
bakarrik zaudela,
andria etxian ondo
utziko zendula,
edo mutilzarren bat
zerade bestela.

Jose Mari ori bertso onekin berotu zan,
eta launa bertso kantatu omen zuten. (6)

* * *

Beste batean, bateonbateg kafea eskeñi ta
alaba eskatu egin zion Itxasperi, ta onek ala
kantatu zion:

Bertso bat botako'izut
asi eta buka,
ez natzaizu ariko
gezurrez ujuka;
alaba nai zenduke
kapiaren truka,
zuretzako tontorra
altutxuan dauka. (7)

PUNTUA JARRITA

Itxaspek etxean txal flako bat zeukan,
eta, burla egiteagatik, puntu au jarri zion
auzoko gizon batek:

Ernari egongo da
zure larre-txala...

(6) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-
lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(7) Juan Jose Lizarreta, Agiñaga.

Ta Itxaspek:

Ondo engañatuba
natxiok bestela,
etzeukak txantxetako
errape azala,
Aita San Antoniok
bedeinka dezala! (1)

* * *

Bein batean, Itxaspek, perira joanda, etxean zeukan txal bat saldu omen zuan. Benta bertsolaria bialdu zuan txalaren billa. Bañan Itxasperen andreak ez omen zion Bentari txalik eman. Orduan Bentak, kalera etorri ta puntu au jarri zion Itxasperri:

Arrazoia're bazuen eta
dantzatu zuben mingaña...

Ta Itxaspek:

Gure artean dana nai danên
gertatutzen da eziña,
alegiñian on egiten e
saiatzen natzaiok baña,
eztek erreza arrapatutzen
olakuari tamaña!

(1) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

Beste bertsolari batek, Txanka'ko Inazio
Marik, txalaren prezioa jakin nai zuan, eta
puntu au jarri zion Itxasperi:

Nere ustietan ontzakotxo bat
biarko zuben pagatu...

Ta Itxaspek:

amabi duro eskatu eta
berago zaidak geratu,
ontza erdi bat eskeñi eta
geiago etzaidak goratu,
illetan asko zeukaken eta
etzaidak gaizki portatu. (2)

* * *

Bein batez, Igeldo'ko Egiluze'n egun ba-
tzuek lanean pasa omen zituan. Gero, di-
ruaren ordeaz, ardi zar bat eman omen zio-
ten. Ta, bere ardi ta guzi etxe aldera zijoa-
la, ikusi egin zuten Usarbe alde ortan. Ta,
urrena tabernan alkar topo egin zutenean,
puntu au jarri zion Bentak:

Itxaspe onek ekarri omen du
ardi zarren bat ostuta...

(2) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

Ta Itxaspek:

Ederki asko jarri nai dek ik
agure zarran konduta,
artzeko pixkat banuan eta
bestela ezin kendu ta,
Egiluzetik ekarriya det
iru duro pagatuta. (3)

* * *

Itxaspe mozkortuta zegoan batean, elbie-
kin ezin buruturik zebillen, botatzen zuan
ardo-lurrunera etortzen baitzizaizkan.

Bazan an Ameriketatik etorritako mutil
zar bat Agiñaga'koa, eta onek ala bota zion
bertso-asiera:

Osto aundi bat artu biar det
elbiya oiek kentzeko...

Ta Itxaspek onela segitu zion:

Zikinkeri edo peste gaiztua
zuri etzaizu paltako;

(3) Pedro Bidasoro, Eguzkitza baserria, Aginaga.
Maria Josefa Lertxundik ere (Andu baserria, Orio)
eman zidan bertso au, puntu guziak berdiñak, azke-
nekoa izan ezik:

ekarri diat aik berdindu ta
iru pezta pagatuta.

Habana'tikan etorri ziñan
bazar guziyak nasteko,
neska gazte bat artu biazu
arkakosuak iltzeko.

Orduan, indiano arek beste bertso-asiera
au kantatu zion:

Oraintxen laster egin biar det
aurrera edo atzera...

Ta Itxaspek:

Len ere beste oinbeste gauza
aditu gabez etzera;
zere buruaz etsi ta gero
kejatzen asi al zera?
Despeira txarra zuretzat dago
deskuidatutzen bazera! (4)

* * *

Maria Josepa Lertxundi, Errikotxia ber-
tsolariaren alabak, beste onela kontatu digu:

Itxaspe mai-buruan erdi lotan omen ze-
goan, burua esku-tartean artuta. Amerika-
no gazte batek, nola zegoan ikusita, puntu
au jarri omen zion:

(4) Manuel Urruzmendi, Arzabaleta, Zubieta,
Usurbil, eta Bautista Zumeta, Txokoalde, San Este-
ban, Usurbil.

Ostro beltz baten billa nijoa
zuri elbiyak kentzeko...

Ta Itxaspek, burua altxata, onela eran-
tzun zion:

Amerikatik etorri ziñan
baztar-guztiyak nasteko
zikinkeriya eta pestia
beñere ezta paltako,
andre gazte bat artu biar dek
arkakosuak iltzeko!

Ta, au kantatzean, lepotik arkakosoa keu-
du omen zion.

* * *

Urte batean Itxaspek oso arto txarrak zi-
tuan nunbait, eta, orregatik, Benta bertso-
lariak onako puntu au jarri omen zion:

Itxaspe ortan bada
gauza abondoso...

Ta Itxaspek onela jarraitu zion:

Lurrak indarrên dêla (5)
nai det adierazo;

(5) indarrên dêla = indarrean daudela.

aurten egiñak ditut
amabi artosô, (6)
larogei bat anea
baditut airoso. (7)

TRATUAN

Egun batez, zazpi ardi zar ekarri zituan
Itxaspek saltzeko Orio'ko perira. Inguratu
zan Benta bertsolaria, ardiak miatu zituan
ondo, ta puntu au jarri zion Itxasperi:

Okeletan ez daude
alako loriyak...

Ta Itxaspek onela jarraitu zion:

Plako xamarrak baño
ezurrak aundiyak,
eztago izaterik
aukera guziyak,
orra zazpi ardi zar
salmentan jarriyak. (1)

* * *

(6) artosô = arto-soro.

(7) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(1) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

Bein batez, aari bat ekarri zuan perira Itxaspek, bañan etzizaion erostunik azaldu, eta Goiko-kalean, Alberdiñeko baratzen, lotuta utzi zuan, eta bera Beko-kalera joan, Uzkuneko tabernan sartu ta bertsoan asizan.

Bañan erren aundia zuan barbero zar batek, aariagana joan, askatu eta Itxaspekantuan ari zan tokiraño ekarri zuan; da emen, aaria erakutsiaz, puntu au jarri zion Itxasperi:

Ari bat salduko nuke
preziyo merkian...

Ta Itxaspek:

Eztakit tratu ori nola
egin litakian;
baldin sokatik utzitzen
badiyok pakian,
iregatik laister dek
lengo parajian.

Esan bezela, barbero ori errena baitzan, eta arengatik laister iges egingo zuan Itxas-pera-edo. (2)

* * *

(2) Franzisko Peña, Etzaiz baserria, Orio.

Berez Jose Maria Esoain eta izengoitiz Kirrimarro zeritzan gizon batek, Orioko perirra bei bat atera zuan saltzeko.

Bei ona zan eta bereala saldu zuan.

Andik pixka batera, beste tratulari bat azaldu zan. Beia ikusi zuan, gustatu zitzaion, da onela galdetu zuan:

—Zein da bei onen jabea?

Ta aldamenean zegoan gizon batek erantzun zion:

—Bei onen jabea? Jose Maria Esoain.

Bañan Itxaspe ere an egokitu, ta onek:

—Len bai, baña ez oain! (3)

* * *

Bein batez, Itxaspek mendi-txekor bat erosi omen zuan Bentatik. Billa joan da soka erantsi zionean, egundoko kolpea tira omen zion txekorrak, ta bai alkandora puskatu ere Itxasperi. Orduan onek bertso au kantatu zion:

Arrotzari jotzeko
jeniyua're ba'u,
uste't pagatu deula
bear alako lau;

(3) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

adarrekin eldu ta
egiten digu *rau!*,
trapuz mantendu bearko
onen pasiyo au! (4)

* * *

Bein batean, Itxaspe perira etorri zan, zikiro bat saltzera, ta Orio'ko Alberdineko tabernariari saldu zion.

Gero, bertan maian exeri ta merienda ederra egin zuan. Bukatutakoan, onela eskatu zuan kontua:

—Orain ikusi bear diagu, balantzia zein aldetara diagan!

Kontuak atera, ta Itxaspe bost xentimo artzeko gelditu zan, zikiroaren balio guzia janda.

Tabernariak onela esan zion:

—Nai badek, kopa bat emango diat; bestela bost xentimo. Erorrek aukeratu!

Ta Itxaspek bertso onekin erantzun zion:

Jose Mari tratuban
nere aldên iaio,
bakoitzari beria
eman biar zaio;

(4) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

ni beti eraten da
alare eziñ itto,
kopa bat ekarri ta
zikirua kitto. (5)

SAN JUAN ESKEAN

Itxaspe askotan ibiltzen zan San Juan eskean. Artikula-aundiraño ere etortzen ziran. Emengo gizona, Udarregiren suia, oso lagun aundia zuan, eta, kopletan asi baño leenago, onela otsegiten zion:

—Juxto, etorri adi trago bat ardo egitera!

Tragoa eginda, koplatzen asten zan. (1)

* * *

Bein batean onela koplatu zuan mutil jator bat:

Mutil gazte au ikusten degu
lan guztiyetan egoki,

(5) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertso-lariaren billoba, Andu baserria, Orio.

(1) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba ta Juxto orren semea, Artikula-aundi'n jaio ta orain Igeldo'n bizi dana.

artzantzan oso ona da eta
itzantzan ere badaki. (2)

* * *

Lenengo, txantxetan gaizki esaka kanta-
tzen omen zuan, bañan gero ondo bukatu.
Urte batean onako koplak auek bota omen zi-
tuan Orio'ko Aldape baserrian:

Etxe onetan interes asko
omen daukate afanez,
berriz e ola izango diyek
asko artu ta eman ez.

Zarran pasada egin degu ta
koplak dezagun gaztia,
enbidioso galantak dira
bata bezela bestia.

Etzazu pensa, Jose Maria,
ari naizela txantxetan:
zu bañan gizon obiagorik
ezta sartutzen galtzetan. (3)

* * *

Baserri batean, oi dan bezela, pameli gu-
zia koplatu ondoren limosna eskatu zuan,

(2) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsola-
riaren alaba, Andu baserria, Orio.

(3) Jose Antonio Irastorza. Itxaspe baserria, Orio.

bañan ez eman... Orduan, asperturik, onela kantatu zuan:

Munduba onetan bagabiltzade
zenbatxe seme sobradu,
beori kapitan juaten baldin bâ
gu juango gera soldadu. (4)

Kopla onen pipermiña zertan dagoan ikusiko bada, komeni da euskal esaera zar au oroitzea: Soldadua, amaren seme sobradua. (5) Esaera au oso gogoan zuala kantatu zuan Itxaspek.

* * *

Bukaerakoa bertso jakiña izaten zuan:

Abarka zarra daukat ankian,
galtzerdi zarra zankuan,
nere kuadrilla, otsein zazute
nai dezuenian: San Juan!

Ta kuadrillako mutillak "San Juan! San Juan!" oju egiñaz alde egiten zuten. (6)

* * *

Urte batean bi kuadrilla ibilli ziran San Juan eskean: bat, Itxasperekin, eta bestea

(4) Jose Ramon Esnal, Orio, Arizmendi baserrian jaioa.

(5) Ikusi, adibidez, Auspoa 16, 55'gn. orri-aldean.

(6) Mateo Landa Alkain.

Aginaga'ko "Dranba" baserriko bertsolari batekin. Onek oso buru aundia omen zuan.

Biaramonetan, San Juan egunean alegia, Andu baserrian izan zuten merienda bi kuadrillak.

Dranbaren kuadrilla Itxasperen etxeraño allegatua zan kantatzera, ta, meriendan bertsoan ari ta ari zirala, Dranbak burla egin zion Itxasper bere baserriagatik.

Orduan onek onela kantatu zion:

Itxaspe aldian egin bazan au
zenbait tokitan erori,
gure zakurrak ortzakin eldu
egingo zion berari;
ijara luze, bizkarra zorrotz,
erbiñuria diruri,
onen burua jan izan balu
gaurko ederki zan ori. (7)

(7) Pasadizua, Errikotxia bertsolariaren seme-alabai jaso: Prantxisku Mari ta Maria Josefa.

Bertsoa, jarri degun eran, semeari jaso.

Alabak beste onela ematen du:

Itxaspe aldian egin baziñan
zenbait tokitan erori;
gure zakurrak aguro eldu
egingo zizun zerorri;
gosiak dago, ijara luze,
erbiñuria diruri,
zure buruba jan baldin balu
gaurko ederki zan ori.

ITXASPE TA GAZTELU

San Juan eskean zebiltzan batean, onako koplak aukeratu zituzten alkarriz Gazteluk eta Itxaspek.

Gazteluk onela esan zion:

Zurrutian da lasaikerian
zere denbora guziyan,
olakorikan ez da izango
Italiyan da Rusiyan.

Ta Itxaspek onela erantzun zion:

Italiyan da Rusiyan ere
allegatua al zera?
a zer nolako zekor bapua
azaldu zinan saltzera! (1)

* * *

(1) Prantxisku Mari Lertxundi, Errikotxiaren semea, Muniota, Orio.

Onen arreba Maria Josefak, beste onela eman zituzten koplak aukeratu zituzten:

Zere denboran ortxe zabilta
betiko mozkorikerian,
zu bezelakoik ezta izango
Italiyan da Rusiyan.

Italiyan da Rusiyan ere
zu izanduba al zera?
A zer nolako zekor gorriya
atera zinan saltzera!

Itxaspe bertsolariak etxea erosi zuan Orio'ko kalean lau milla pezetaz, eta, Itxaspe baserria utzita, kalera jetxi zan.

Aldatu ondoren, egun batean, Itxaspe ta Gaztelu tokatu ziran Txokolatenen.

Bertsotan asi ziran eta, ari zirala, bertso au kantatu zuan Itxaspek:

Gauza egiya esango diat
egiten bazat goatu:
bizimodua ateratzen
ederki diat probatu;
etxe koxkor bat egin nuan nik
erosi eta pagatu,
nere sakelan diru askorik
etzan orduan geratu.

Ta Gazteluk onela erantzun zion:

Pasadizuak esan dizkigu
txit promal eta seriyo,
etxe koxkor oi pagatu zuen
andria zala meriyo;
lau milla pezta zun preziyua
ta bi eztitu baliyo...
espaldarekin botako nuke
elduko baldin baniyo.

Ta, azken puntu au esatean, espalda makurtu ta botatzeko keñua egin zuan. (2)

Ordukoa ez-ezik, beste jardun-aldi asko ere egin omen zuten bertsoan, etxe berri ori gai artuta. Oietako batean onela kantatu omen zion Itxaspek Gazteluri:

Txalet koxkor batian
bizi naiz dotore,
lujosua ez dala
antzemanak gaure;
ezin sufrituakin
mintzatu da au're,
oinbestekuan jabe
noiz ingo zerare? (3)

* * *

Beste egun batean ere, bertsoan ari ziran alkarrekin Gaztelu ta Itxaspe. Egundako bi bertso ola izan ziran:

Gazteluk:

Itzegin biar dizut
lasai eta prestu,
lengo dotriña zarra
txit ezpazat aztu;

(2) Prantxisku Mari Lertxundi, Errikotxiaren semea, Muniota, Orio.

(3) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

or dâbilki pipa bat
bete eta ustu,
tabakutako ainbat
sortu biar eztu.

Itxaspek:

Gaztia izan arren
baitu baloriak,
eztiyek paltatutzen
ire koloriak;
probatu nai badituk
posiblidadiak,
zarraguak gatxeudek
i baño obiak.

Jarrai zuten kantu-lanean, eta Gazteluk,
mutilzarra baitzan, alaba eskatu zion Itxas-
peri bertsoaren batean. Baita onek agindu
ere. Orduan Gazteluk esan zion, neskatxak
len ere nobioa bazuala, ta fama koxkorreko
mutilla zala, ta alaba arekin ezkontzen ba-
zan, bera, Itxaspe, Mixerikordira joan bea-
rrean arkituko zala... Jardun ontako bi ber-
tso onela izan ziran:

Gazteluk:

Diferentziya dago
karrotik gurdira,
Itxaspek izango du
akaso perdira;

esate'uten bezela
juntatzen badira,
laister jua biarko du
Mixerikordira.

Itxaspek:

Batista, goitik ai da,
Iñaziyo bia,
bertsotako adierak
onela oi dia;
batzutan lau-ortza ta
bestian aria, (4)
oi eztek bertsotâko
kuixidadia. (5)

(4) *Lau-ortza ta area*, lur maneatzeko erabiltzen diran bi tresna dira.

(5) Jose Antonio Irastorza, Itxaspe baserria, Orio.

ITXASPE'KO JOXE MARI

Itxaspe baserriak bi bizitza zituan. Batean, dakigunez, Itxaspe bertsolaria bizi zan; bestean, garai batez, anai bat ta lau arreba bizi ziran. Anaiak, Joxe Mari zuan izena, ta oso bertsolari polita omen zan.

Bein batez, *golua* edo *kolatxa* deritzaion gaitza zuten ardiak saldu zizkioten nunbait artzairen bati, eta Joxe Mari onek, jenero txar au berari sartu izan bazioten bezela, bertsoak jarri zituan. Paperetan inprentatuta zabaldu ziran. Bañan, zoritxarrez, ez degu paperarik arkitu. Onako bertso auek, Errikotxiaren alaba Maria Joxepak (Andu, Orio) zekizkianak dira:

- 1/ Parra egin legiyoke
ardi txar dunari,
begiratu ezker
nere jardunari;
batzuek iltzen zaizkit,
beste asko eri,
ezin segiturikan
bere lagunari,
orra libertitzeko
nai aña komeri.

2/ Asitzen geranian
sartzen barrutira,
beti laguntzen diet
bultza ero tira;
ez gerade atrebitzen
juten urrutira,
noizko egingo ote
degun erretira,
birian geldituta
kontu txarrak-tira. (1)

3/ Probatu ez dubenak
onelako gaitzik,
eziñ esan dezake
gai onetan itzik;
nere ardiyetatik
askotatik gutxik
adituko dirate
kukuaren otsik,
bildur naiz geldituko
ote naizen utsik.

4/ Klaro egin ditut
oien predikuak,
etsimena emanik
daude medikuak;
milagrúa egiten
ez badu Jainkuak,
kantatu ordurako
aurtengo kukuak,
libratu biar zaizkit
ardien lekuak.

(1) txarrak-tira = txarrak dira.

5/ Tratuba egin genduben
tatxa erretatxa, (2)
irutatikan batek
badauka kolatxa;
jabiak senti ziyen
lenagoko mantxa,
nigana eragin diye
azkeneko martxa,
len bajua neguan,
ez nau gora altxa.

(2) Batzutan ardi-tratuan, ardiak bederatzaurren baterako proban artzen dira; tatxarik ez badute, artu egiten dira, ta, baldin badute, entregatu edo, bestela, saltzalle-erostunak berriro alkarrekin konpondu. Bestetan, berriz, tratua probarako bederatzaurren ori gabe zerratzen da; oni esaten omen zaio tratua *tatxa-erratatxa* egitea.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi, S.I.: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. T. Alzaga: RAMUNTZO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI.
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BORDAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI.
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.^a Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.^a Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala, S.J.: TXIRRITA.
20. F. Goñi, S.I.: LURDESKO GERTAERAK.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.

IMPRESO EN ESPAÑA